

Herririk Herri |2|
Bateginezek Pochutako proiektuen
balorazioaren barri emon dau

Ekonomia |10|
Enplegua sortzeko laguntzak Bizkaia,
Gipuzkoa eta Arabako Udalen esku

Toki-Alai |26|
Urkiolako Lagunak taldeak azaroaren
15erako Saibira irteera antolatu dau

Hildakoak gogora ekarriko ditu, etzi, Domu Santu Egunak

Durangaldea• Domu Santu aurreko egunak aprobetxatzen ditu hainbat herritarrek hilerriak atontzeko. Izan be, domekan, lorez beteta egongo dira kanposantuak, hildakoak gogoratuz. **3**

Eskualdeko dantzariak 'Dantzaroan...'

Durangaldea• Eskualdeko "folklore aberatsaren" erakusleio izango da, zapatu honetan, Durangoko Andra Mariko elizpean Gerediaga elkarteak antolatuko dauen *Dantzaroa...* jaialdia. **3**

Kalez kale musika zabalduz, 10 urte Txiri-Txiri taldeak

KULTURA• Azaroaren 7a aukeratu dabe Txiri-Txiri taldekoek taldea sortu ebeneko hamarkada ospatzeko. Kalejira, bazkaria eta erromeria antolatu ditue urteurren jairako. Musikariekin hitzordua izan dogu asteen. **13**

Berasaluzek lau t'erdiko lehia du Gonzalezen kontra

KIROLA• Astelehenean azkain-darra menderatzen badau, lau onenen ligaxkan sartuko da Pablo Berasaluze. Udan partidu asko jokatu ondoren nekatuta zegoen, baina errekuiperatu dela dino, eta sasoi betean jokatu dau. **24**

• **Abadiño**
Berdintasun Plana aurkeztu dabe Errota kultur etxean **7**

• **Iurreta**
Zergak eta tasak izoztea erabaki dau Udalak azken plenoan **6**

• **Mallabia**
Musikaz betetako egitaraua aurtengo urriko jaietan **3**

A gripearearen gorakadaren eraginez, larrialdi zerbitzuak gainezka dagoz

> Joan zen domekan Durangoko larrialdi zerbitzuek 200 lagun hartu zitueen

> Balentziaga medikua: "Jaien ostean gazteen artean eragin dau gehien"

9



Kepa Aginako

'Astola' urtekaria: Durangaldea hobeto ezagutzeko modua

Durango• Eskualdeko hainbat historialari eta ikerlariren lanen bilduma da urtero Gerediaga elkarteak kaleratzen dauen *Astola* urtekaria. Durangoko Elkartegian aurkeztu eben jendaurrean, atzo,

urtekariaren hirugarren alea. Aurreko bi aleek izan daben arrakasta ikusita, 24 orrialde gehitu deusiez, eta tirada be handitu egin dabela jakitera emon dabe Gerediagako arduradunek. **2**

ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K



Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyexpe.biz

APAINGARRI ETA INDUSTRIALA
Pinfaras
Sagasta
Pinfarak

Sagasta auzoa
Anbe Goikoa
48220 ABADIÑO
Bizkaia
Tel.: 629 143 944
Ibai Urien Madrazo

• Fatxadetarako proiektu bereziak
(impermeabilizazioak, barnizatuak, ...)
• Era guztietako barne eta kanpoko
dekorazioak
(lokalek, tabernak, etxebizitzak, ...)

HERRIRIK HERRI >

■ DURANGO

Bateginez-en Pochutako lanaren azterketa bultzatuz

Kalidadeak dinonez, Bateginezen lanak Pochutako "aldaketa sozialean" lagundu dau

Urteotan Guatemalako Pochuta herrian martxan jarritako proiektuen balorazioa egin dau Bateginez Gobernu Kanpoko Erakundeak. Lan horretarako Kalidadea aholkularitzaren laguntza jaso dau. Azterketaren arabera,

Proiektuak herritarren oinarritzko beharrianetara bideratuta dagoz: osasuna eta hezkuntza, batez be

Aurrerapausu handiak emon ditueen arren, oraindino erronka handiak daukiez

"Durangaldeko kooperazioak gizarte aldaketa martxan jartzen lagundu dau". Ikerketaren egile Itziar Rubiok Pinondo Etxean emondako berbaldian, Bateginezen parte-hartzearen "egokitasuna" azpimarratu dau. Martxan jarri ditueen proiektuak Pochutako herritarren oinarritzko beharrianetara bideratuta dagozela gaineratu dau, osasun eta hezkuntza arloan.

Bateginezek Pochutako APSADEC elkarteagaz elkarlanean dihardu. Rubioren berbatan, "lantalde bakarrak dihardu lanean eta genero ekitatea ezagutu eta lantzen dabe, eta baliabideen erabilera egokia egiten dabe".

Orain hamarkada batetik Bateginezek ez dauka bolondresik Pochutan. APSADECen bitartez lan egiten dabe. Bertako elkar-tea "indartu" egin da azken hamabost urteotan. "Komunitateko liderrak" sortu dira. "Pochuta herriko elkarte prestigiotsuena bilakatu da", dino Kalidadeak.

Balorazioan nabarmendu gura izan dabenez, beka kopurua handitu egin da, eta geroago eta emakume gehiagok parte hartzen dabe hezkuntzan.

Aurrerapausu handiak emon ditueen arren, Bateginezek erronka handiak daukazela azaldu dabe, halan be; bai Pochutan eta bai Durangaldean bertan. Bertako eta hemengo elkar-arte hartu-emon sendotu gura dabe. Bateginezek elkarte moduan barne gogoeta jarri dau martxan. Boluntario falta eta kudeaketa sistema barria sortzea dira elkar-teak aurre egin beharreko gai nagusiak. ■ J.G.

Berbalagun, euskarazko guneak sortu eta bultzatzeko

Euskaldunbarri eta zaharrak batuta, egitasmoan parte hartzera deitu dabe



Euskaldunzaharren kopurua indartzea da Berbalagunen erronketariko bat. Berbalagun

Euskarazko guneak sortu eta bultzatu guran, sei urteko bidea egin dau Berbalagun egitasmoak Durangon, eta zazpi-garrena da hastekoa. Abarrak-AEK, Berbaro, Udal Euskaltegia, Hizkuntza Eskola eta Euskara Zerbitzuak dira sustatzaile, eta "euskara praktikatzeko eta, ahal dela, euskaraz bizitzeko" egoerak sortu eta hainbat jarduera eta ekintza eratzten ditue. Horrengana jota emon leiteke izena.

"Euskara maila hobetzea eta ikas prozesua arintzea, normalizazio prozesuan eragile aktibotzea eta hizkuntzagazko atxiki-

mentu eta motibazioa areagotzea" eskaintzen dau Berbalagunek, "euskarazko harreman sareak sortu eta erabileragune barriak irabazi" ez eze. Horren adierazle da sei urtean Durangon bizi eta lauan euskara ikasten diharduen Josep Vigo. Berbalaguni esker euskara maila hobetzea lortu dau katalu-

niarrak: "Kalean euskara erabiltzen laguntzen deust. Komenigarria da izena emotea euskara bultzatzeko be". Igaz 96 lagunek (12 talde) jardun eben, baina euskaldun-zahar kopurua jaitsi ei da.

Erronkak

Aurtengo erronka da hori indartzea. Horren haritik, "euskara maila dena delakoa izanda be" parte hartzera deitu ditue euskal hiztunak; dagoeneko 50 lagunek emon dabe izena. 'Euskararen menua' zabaldu gura dabe ekitaldi barrikin, eta eskualdeko beste Berbalagunekin elkarlanean. ■ A.B.

96 lagunek (12 taldetan) parte hartu eben Durangon Berbalagun egitasmoan, igaz

Ur-hornidura "sendotuko" dauen biltegi barria

Foru Aldundiaren Ingurumen Sailak eta Udalak lan-hitzarmena lotuta daukie lanak gauzatzeko

Tabirako ponpatze-estazioaren egitasmoaren baitan jasotako hornitze-lanak gauzatzeko, bulkatze-lanetarako eta Eguzkitzagoenako ur-biltegi erregulatzaile barrirako lan-hitzarmena sinatu dabe Bizkaiko Foru Aldundiaren Ingurumen Sailak eta Udalak. Halan jakin eragin dabe foru arduradunek. Beharguztiotarako, ia 2,6 milioi euroko inbertsioa egin beharko dau diputazioak.

Biltegi barria

Hegoaldetik hornituko dau Durango biltegi barriak, hornidura sareak sendotuz. Orain, Garai-zarko biltegiaren bitartez hornitzen da —4.000 metro kubiko ditu—, azaldu dabenez. Horretara,

Eguzkitzagoenako bizileku barriari "presino egokia" emoteaz gainera, hirigune osoko hornidura-sistema "sendotuko" dabe. Biltegia betetzeko, "preminazkoa" ei da ponpaketa-estazio barria, ura hartunetik Mañaria-Ermua sarera bulkatuko dauena.

Bizkaiko hainbat herritan ur-hornidura sareak hobetzeko proiektu sortaren barruan dago lan hau; 31.500 etxetik gora baliatuko dira hobekuntzotaz. ■ A.B.

Ia 2,6 milioi euroko inbertsioari egingo deutso aurre Bizkaiko Aldundiak

Oroimenek hunkituta ekarri zitueen gogora 'Agurrik gabeak'

Eguraldia ez eben lagun izan, eta Plateruena kafe antzokia hartu eben aterpe moduan 'Agurrik gabeak' gomuta ekitaldi hurreraturako herritarrek. Oraingoan be bete egin eban antzokia Durango 1936 kultur elkar-teak antolatutako omenaldiak. 1939ko San Fausto egunez fusilatu eben Luciano Iturrieta durangarraren Adita alabak egin eban lore eskaintza.

Senarrari gertatutakoaren abisua emonda amagaz batera gau haretan ihes egin ebanetik Asturiasen bizi da Adita. Venezuelan be bizitakoa da, eta han "askatasuna" zer den ezagutu eban. Txalo artean hartu eben Adita, eta hunkigarria izan zen *Durango oroimenaren gogoan* dokumentalaren emanaldia. Ikus-entzunezkoaren kopia pribatuak helarazteko hainbat eskari jaso ditu Durango 1936 elkar-teak, azaldu dabenez. ■ A.B.



Anboto

DURANGALDEA

‘Dantzaroa...’, Durangaldeko folklorea plazaratzeko zita

Mendeetan gordetako Durangaldeko folklore “aberatsa” eskainiko dabe eskualdeko dantzariak, zapatuan, Durangoko Andra Mariko elizpean

Garaiko *Gernikako Arbola* dantza, *Gorularien estampa*, *Arkudantza*, *Domingillo* dantza, Elorrioko *Errebonbilloak*, Durangoko *Platillu Soinua*, Iurreta eta Garaiko nesken *Sokadantza* eta *Dantzari dantza* eskainiko ditue Durangaldeko 180 bat dantzari eta txistularik Durangoko Andra Marian, zapatuan, 19:30ean. Mendeetan gordetako “dantza eta kantu inguruko folklo-re aberatsa” plazaratzeko hitzordua jarri dau Gerediaga elkarteak: *Dantzaroa...* Alde Zaharrean kalejira egingo dabe, 19:00etan.

Oraindino agintarien aurrean egiten diren eta eskualdeko folklo-rearen adierazle nagusi diren dantzok, askorentzat ezezagunak, plazaratu eta ezagutzera emon gura ditu urteroko zita izan gura dauen *Dantzaroa...*-k, eskualdeko dan-

tzarien eskutik. Abadiño, Garai, Iurreta, Berriz, Mañaria eta Durangoko taldeak batuko ditu; Elorrio eta Izurtza be gonbidatu ditue.

Usadioak eta dantza
Dantzokin lotuta, beste ohitura batzuk be mantendu dira, argitu dabenez. Hor dira Garaiko *Gerni-*

Durangoko Alde Zaharrean kalejira egingo dabe 19:00etan; agerraldia izango da, Andra Marian, 19:30ean

Askok ezagutzen ez ditueen dantzak ezagutzera emon gura ditu jaialdiak

kako Arbola dantza—prozesinoan, Santiagoren omenez, dantzari eta herritarrek egindakoa—, Elorrión, Errosarioko Ama Birjinaren aurrean, Errebonbilloekin sasoiko arma alardea gogoratzen dauen prozesinoa, edo Durangoko Euskal Jaietarako, Valentin Zubiaurrek, beste batzuen laguntzagaz, 1886an berreskuratutako *Gorularien estampa*; Iurretan, 1972an berreskuratutako dantzak be bai.

Andra eta gizonen arteko dantzak be badira inguruko jaietan: *Sokadantzak*, mutil edo neskek zuzenduta; Garaiko Santa Ana eguneko *Aurresku nagusia*, andra ezkondu batek burutua; edo ‘San Sebastian...’ kantagaz Iurretako neska gazteek egindakoa. Denak erakutsiko ditue, eta gero euskal baserriko oilasko dastaketa eskainiko dabe. ■ A.B.

Lora eta jentez beteko dira Durangaldeko kanposantuak domekan

Azaroaren 1a, Domu Santu Eguna, hildakoak gogoratzeko hilerrira hurreratzeko eguna

Urtez urte mantendu den ohitura da, azaroaren 1ean, Domu Santu Egunean, hilerrira joatea. Oraindino asko eta asko dira hildako senide edo lagunak gogoan hartzeko kanposantura hurreratutako bisitariak. Egia da, baina, baktxaren sinismen eta gurarien arabera hartu ohi doguzela gogoan hildakoak. Horretara, gorpualurperatu baino errausketa gurago dabena be asko dira, esaterako.

Ez ohiko itxura
Halan be, oraindino hilerrietan igarri ohi da Domu Santu, santu guztien omenezko jai kristaua. Jentez ez eze, lorez bete ohi dira hilerriak, ez ohiko itxura koloretuagoa erakutsiz. Atontze-lan horretarako aurreko egun honek aprobetxatzen ditue gehienek. Era berean, askok Domu Santu

aurreko egun horreek aprobetxatu ohi ditue baita norberaren hildakoak gogoan hartzeko eta jentetza saihesteko be. Urteroko hitzordua ohi da azaroaren lehenengoak dakarrena: etxekoen eta lagun hiliarriari bisita lehenengo, eta, ondoren, gainerakoei begiratua. ■ A.B.

Ohiko ez den itxura koloretsua erakutsiko dabe domekan hilerriak

Atontze-lanetarako be badiren Domu Santu aurreko egunok aprobetxatzen ditue askok hildakoak gogoratzeko

MALLABIA

Musika talde ezagunak urriko jaietako asteburuan

‘Balkoitik balkoira’ bertso saioa eskainiko dabe Estiballesek, Xabier Payak eta Etxahun Lekuek

Gaur arratsaldeko pala partidua-gazekingo deusie, 17:30ean, urriko jaietako egitarauari. Txupinazoa 19:00etan jaurtiko dabe jaiei hasiera ofiziala emonez. Ordu berean, Alex Txikon mendizaleak ikus-entzunezkoa eskainiko dau Orraittio euskara elkarteak antolatuta. Gaueko 21:30ean, Diario Vasco Txapelketa izango da jokoan: Onsalo-Aldape Armandariz-Gorrotxategiren aurka eta Olaetxea-Pazos Mendinueta-Are-

Alex Txikon mendizaleak ikus-entzunezkoa eskainiko dau Orraittiok antolatuta

pelketa jokatuiko ditue. Arratsaldeko 17:00etan Kiki eta Moko pailazok umeei zuzendutako saioa eskainiko dabe frontoian. Gaueko 22:00etan, Deabruak Teilatuetan, Leihotikan, Disorders eta Zea Mays taldeek zuzenekoa eskainiko dabe. Goizaldeko 05:00etan, indarrak barritzeko txorizo pintxoak banatuko ditue elkarteak. Tortilla txapelketa antolatuko dabe domeka eguerdian plazan, eta 17:00etan *Balkoitik balkoira* kantatuko dabe Arkaitz Estiballes, Xabier Paya eta Etxahun lekue bertsolariak. ■ J.G./P.M.



Askotariko ekitaldiak antolatzen ditue urriko jaietan mallabitarrek.

Diario Vasco Txapelketa jokatuiko dabe gaur, 21:30ean, frontoian

txabaletaren kontra arituiko dira. Eguna behar den moduan amaitzeko, Bide Batez taldeak erromeria giroa jarriko dau plazan.

Zapatu goizeko eskolarteko futbito partiduan Mallabiak Zaldibar izango dau aurrez aurre. Ondoren, 12:00etan, Emakumezko Saskibaloia Eskola antolatuko dabe eskolako frontoian. Arratsaldean mus, tute, briska eta asto txa-

Industrias tey

Trataera Termiko Bereziak eta Consulting Tekniko-Metalurgikoa

ALTZAIRU LASTERREAN

Polg. Ind. ARTIA - 48291 ATXONDO - Bizkaia - Tel.: 94 621 55 90 - Fax: 94 620 23 70
E-mail: ind_tey@infoegocio.com - www.infoegocio.com/industriatey

MINKENDU

Albeto Murua

Andra Mari, 18 • 48200 DURANGO

tf. 662 270 770

MASAJEA, AKUPUNTURA (orratz gabe ere) ETA MINAREN AURKAKO TERAPIAK • HIDROLINFA

BERRIZ

Trena lurperatzeko eta saihesbidea egiteko beharra onartu dabe

Lurralde Zati Egitasmoak saihesbidea egiteko eta trena lurperatzeko proposamenak jasoko ditu

Udalak oraintsu jaso dau bere sasoian Lurralde Zati Egitasmoari egindako alegazioen erantzuna. Herriguneko trafikoa arinduko leuken saihesbideari ondo deritzo Aldundiak, baina ez dabe trazaturik zehaztu; hori behin betiko planean jasoko dabela dioe. Trena lurperatzea be begi onekin ikusi dabe; azkenik, alegazio nagusienekin amaitzeko, A-8 autopista mugitzeko proposamenari ezetz esan deusie, ekonomikoki zein ingurugiroari begira kostu handiegia litzatekelako.

Saihesbidearen inguruan ez dabe trazaturik zehaztu; hori behin betiko planean jasoko dabela jakinarazo dabe

A-8a aldatzeari ezetz esan deusie, ekonomikoki eta ingurugiroari begira kostu handiegia izango leukelako

Saihesbideari jagokonez, Aldundiaren erantzunak “autobi-dearen beste aldetik joango litzatekeen bat” jasotzen dau, gehiagor zehaztu barik. Horregaitik, “Aldundiari eskatu deusagu etorri daitela tekniko bat argibideak emoten, herritarrei ez bada, gitxienez, zinegotzioi”, azaldu dau Goraka Camara zinegotziak.

Trenbidea lurperatzeari buruz, Aldundiak proposamena berretsi dau. Trenbidea lurperatuz gero, institutu inguruan irtengo litzake—orain egiten dauen bihurgunea kenduta— eta, ondorioz, geltokia hara tokialdatu beharko leukie.

Erdigunearen beharra

Errepideek eta trenak zonaldea peatonalizatuz herrian erdigune bat sortzea eragozten dabe. Horren inguruan osatu zituen alegazioak ezker abertzaleak. Herri-batzarrean zein hirigintza batzordean harrera ona izan eben. Ondorioz, hirigintza batzordetik alegazioak bateratu zitueen, gero Aldundira bidaltzeko. ■ J.D.



Trenak, N-634 errepideak eta A-8 autopistak Berriz herrigunea zeharkatzen dabe.

Diruz lagunduko ditue zabor, ur eta estolderia zerbitzuak

Diru-sarreraren eta familia zenbat lagunek osatzen daben arabera, laguntzak jaso ahalko dira

Datorren urteko aurrekontuak ur, estolderia eta zabor zerbitzuen ordainketan laguntzeko diru-laguntzak jasoko ditu. Aho batez onartu zitueen azekn udal-

Datorren urteko aurrekontuak onartzen ditueenean hasiko dira laguntzak emoten

batzarrean ezker abertzaleak proposatutako laguntzak. Diru-sarreraren eta familia zenbat lagunek osatzen daben arabera banatuko ditue laguntzak. Diru atala zehazteko azterketa bat egingo dabe.

Laguntzak %20tik %100era-koak dira kasuaren arabera. 517 eurotik beherako diru sarrerak daukazenak ehunetik ehunekoak jasoko dau. Bi edo hiru ume daukiezenek 931 eurorainokoak jaso leikiez; 855-931 eurorainokoek %20koa jasoko dabe. ■ J.D.

‘Denboraren Bankua’ martxan ipiniko dabe eguenetik aurrera

Denboraren elkartrukea sustatzeko ekimena eratu dabe Gizarte Zerbitzuek

Udaletxeko Gizarte Zerbitzuak Sai-lak *Denboraren Bankua* ekimena abiatuko dau azaroaren 5ean. Ekimenaren oinarria denbora zerbitzuen elkartrukea da. Interesatuak berak gauzatu daiken zerbitzua eskaini eta ordainetan berak zerbitzu jaso gurako leuken aztertu. Denboragaz ordaintzen dira zerbitzuak, ez diruagaz.

Ekimenaren sustatzaile dira Sartu federazioa, Caritas, Berrizko Etorkinen Kolektiboa eta Gure Izarrak emakumeen elkarte.

Ekimena azaroaren 5ean ipiniko dabe martxan. Izena emon gura dauenak eguenero 17:30etik 19:30era lehengo anbulategi zaharrera eroan ahalko ditu eskariak.

Ekimenean parte hartu gura dauenak, eguenero lehengo anbulategi zaharrera eroan ahalko ditu eskariak

Orain urte bi eta erdi Ermuan be martxan ipini eben ekimena eta dagoeneko 70 dira parte-hartzaileak

Ekimenean parte hartu gura dauenak zer zerbitzu gura dauen zehaztu behar dau. Sustatu gura dabena, batez be, eskaria danez jendea “beldur barik” joateko gonbita egin dabe. “Mundu guztiak daki zeezer egiten. Datozela eta aurkituko dogu ordainetan jaso geinken zerbait”, dioe udal arduradunek. Oraindino ez dabe erabaki ekimena Berriztarrentzako bakarrik izango den. Hasikeran, kasuz kasu aztertuko ditue eskariak.

Hau ez da Bizkaian egiten den antzeko lehen ekimena. Ermuan orain urte bi eta erdi hasi eben, eta hainbat herritako 70 parte-hartzaile batu ditue. Lekeitio eta La Peñan be martxan dago. ■ J.D.

ZALDIBAR

Alegazinoei emondako erantzunez

Durungaldeko lurralde antolamenduaren datozen hamasei urteetarako egitasmoa biltzen dauen Zati Planari eginiko alegazinoei Bizkaiko Aldundiak emondako erantzunak kaleratzeko herri batzarra deitu eban joan zen eguenean ezker abertzaleak. Bertan, Agarren industriagunea eraikitzeke egitasmoaren kontra azken hau lako herri batzar batean pres-tatu eta egindako alegazioak Aldundiak aintzat hartu dituela jakinarazi eutseen zaldibartarrei.

Zati Planaren behin betiko egitasmoa onartutakoan, herriko arau ordezkatzailleetan egingo ditueen aldaketei buruz be aurretantzean herri-batzarrak deituko ditueela aurreratu dabe. ■ I.E.

OTXANDIO

Hainbat ikastaro aukeran, izena emoteko epean

Gimnastika, Yoga eta Pilates ikastaroen ikasturteari astelehenean hasiera emongo deusie. Gaur arte izena emoteko epea zabalik izan den arren, ikasturtean zehar parte hartu gura dauena Udaletxera joan leiteke izena emotera.

Gimnastikan talde bi sortuko ditue. Yogan parte hartzen dabenak, martitzen eta eguene-tan elkartuko dira 19:30etik 20:45era. Pilatesera doazenak be martitzen eta eguenero izango dabe eguna jarrita, 17:30etik 19:30era talde bik ordu bana izango dabe. Ikastaro guztiak gimnasioan izango dira. Interesdunek administrazioa.otxandio@bizkaia.org helbidera mezua bidali leikie. ■ J.G.

goizeko 08:00etatik
gobeko 21:00etara
zabalik

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

{ odontologia orokorra eta espezialitateak }

muruetatorre bloque 2 - C bajo 48200 durango tel. 94 681 99 51

Betikoak
flexografia
ofizinarako zigiluak
fotolitoak

Bixente Kapanaga, 9 - 48215 IURRETA
Tel.: 94 620 22 41

Hemen agertu gura badozu
deitu!

94 621 79 02

GAURSAKO 8 IBILGAILU IKUSGARRIENAK AURKEZTEN DIZKIZUEGU



► **CLIO
EMOTION**
1.5 dCi 85cv (2007)

10.600*€



► **MEGANE
DYNAMIQUE**
1.5 dCi 105cv 5P (2007)

11.800*€



► **MEGANE
DYNAMIQUE**
2.0 dCi 150cv 3P (2007)

12.500*€



► **LAGUNA
EXPRESSION**
2.0 dCi 130cv (2008)

16.800*€



► **LAGUNA
GRAND TOUR
EXPRESSION**
2.0 dCi 130cv (2008)

17.900*€



► **OPEL ASTRA**
1.7 dCi ENJOY
100cv 5P (2007)

10.900*€



► **OPEL ASTRA**
1.7 CDTI ENJOY
100cv 5P (2008)

11.900*€



► **OPEL VECTRA**
1.9 dCi 120cv (2008)

15.800*€

* P.S.P. transferentzi gastuak bane. 09/11/30a arte edo eta izakinen amaiera arteko eskaintza.
Ikusitarazitako eta eskainitako bertsioak ezberdinak izan daitezke

ZUK DENA NAHI DUZULAKO

**RENAULT
OCASIÓN**

GAURSA

ARRIANDI, 12. IURRETA. TELEFONOA: 94 620 33 00. www.gaursa.com



DIURRETA

Zergak eta tasak izoztuta matenduko ditue 2010ean

“Ardura partekatze aldera” egin dau proposamena Gobernu Taldeak

Zergak eta tasak izoztu egingo ditue 2010ean. Iñaki Totarikaguena alkatearen berbatan, “krisi egoeran ardura partekatze ahalegina egin behar da. Diru-sarrera murrizte garrantzitsua edukiko dogu, bestelako diru-iturrietan be igarriko denari –Udalkutxatik jagokuna— gehituz. Oinarrizko zerbitzuak mantendu arren, bestelakoetan eragingo dau, adibidez, diru-laguntzetan”.

EB-Berdean ustez, “diru gixiag izanda zerbitzuetan be eragingo dauen arren, ez gagoz herritarra gehiago zergapetzeko egotran”. Era berean, enpresek lez

EAJk EB-Berdean eta PPren babesa izan dau; PSE-EE eta Fernando Borja zinegotzia abstenitu egin dira

herritarrek zerga eta tasa gogorre-nak zatika ordaintzeko aukera izan daien sozialisten eskariagaz ados egon dira; ibilgailuaren eta ondasun higiezinaren gaineko zerga, esaterako. PSE-EEK dinonez, “igazko %4ko igoeragaz — KPlaren gainetik 3 puntu— aurtengoa be jaso

zen”. 2009an gizarte laguntzak bibidertu egin direla be badinoe.

Aldaketak

Hiru aldaketa nagusi be jaso ditue ordenantza fiskaletan. Hileta zerbitzuen barruan, gorpuzkinak hezurtokietan sartzeko zink kutxaren gaineko tasa jaso dabe; lokal publikoen erabilera pribatua 75 euro ordainduko da, irabazi asmo bako herriko elkarteek ezik; eta, tasa propioa be sortu da 25 ordutik beherako ikastaroetarako. EAJk EB-Berdean eta PPren babesa jaso dau. Abstenitu egin dira PSE-EE eta Fernando Borja zinegotzia. ■ A.B.

Tellituko aparkalekuari eusteko ituna luzatu dabe

Lagatze-akordioa luzatu dau Udalak orubearen jabeagaz, beste bost urtean erabiltzeko

Tellitu aparkalekuari erabiltzen jarraitzeko lagatze-akordioa luzatu dabe Udalak eta orube horren ugazabek. Orain urte bi adostu eban Udalak jabeagaz orube hori atondu eta aparkaleku lez erabiltzeko lagatze akordioa. Herrigunean atondutako aparkalekuan 75 autorentzat dago lekua, eta beteta egoten da.

Dena dela, aurretik lotu lez, lur hori garatzeko urbanizazio lanak hasteko aukera egonez gero jabe den enpresaren esku geratuko da lur hori. Udaltzak aho batez onartu dauen akordioak bost urteko iraupena dauka.

Mantenuaren kargu

Orain arte lez, Udala lur horren mantenimenduaren kargu egingo da denpora horretan. Iñaki Totarikaguena alkateak argitu dauenez, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren (OHZ) kargu egingo da Udala; 2.000 bat euro ordaindu izan ditu. ■ A.B.

Herrigunean dagoen Tellituko aparkalekuak 75 leku daukaz eta beteta egoten da normalean

DIORRIO

Mota askotako perretxikoak eta onddoak batu zitueen erakusketan



Elorrioko Iturritzoroko elkarteak eta Atxondoko Mikologia Taldeak mikologia erakusketa antolatu eben domekan, Elorrioko kiroldegian. Perretxikoak eta onddoak sailkatu egin zitueen lehenengo, eta bakotxaren gaineko informazioa ipini eben. Erakusketan erakutsitako aleak aurreko egunean batu zitueen. Elorrioko eta Atxondoko perretxiko zaleak autobusean Oletara joan ziren goizean, inguruan zegozen perretxikoak batzera.

A.D.

Jubilatuen etxeko podologia zerbitzua hobetuko dabe

48.000 euro erabiliko ditue horretarako eta beste obra batzuetarako

Aspaldi honetan hainbat obra egin ditue Aldatzekua jauregian. Horreek amaitu ditue dagoeneko, baina jubilatuei zuzendutako lokalean beharrian barriak ikusi ditue, eta, ondorioz, Udalak 48.000 euro bideratu ditu lan horretara.

Batetik, podologia zerbitzua hobetuko dabe. Orain arte, jubilatuek bazeukien podologia zerbitzua, baina “nahiko eskasa”, Niko Morenok azaldu dauenez. “Sukaldean esku-ohe bat zeukien, eta han eskaintzen zen zerbitzua”. Horregatik, zerbitzu “duina” emon asmoz, beren beregi horretara bideratutako gune bat egokituko dabe. Material barria be erosiko

Niko Moreno: “Orain arte nahiko eskas atonduta zegoen, eta gure asmoa zerbitzu duina eskaintzea da”

Podologian erabiltzen dabena aulki berezi bat erosiko dabe, eta atondutako gelari komuna be aterako deusie

dabe, podologian erabiltzen den aulki berezi bat tartean. Horrez gainera, gela barri horri komuna egingo deusie. Bestetik, eraikineko gorengo solairuan erreformak egingo ditue. Berrio-Otxoa abesbatza dagoen solairuan gela barria atarako dabe, orain manparekin banatuta dagoen zonaldean.

Orain artekoa amaituta

Eraikina irisgarritasun neurrietara egokitze lanak oraintsu amaitu ditue. Batetik, hiru solairuak lotzen dituen igogailua ipini dabe eraikinaren kanpoaldetik. Bestetik, sarrera eta komunak elbarrituendako egokitu ditue. ■ J.D.



Hiru solairuak lotzen dituen igogailua ipini dabe eraikinaren kanpoaldetik.

IZURTZA

Jaietako irudiak bideoan bildu ditu Bitañok

Herriko jaietan eta aurtien herrian izan den Durangaldeko Ezpata-dantzari Egunean hartutako ehun argazki inguruko bildumagazikus-entzunezkoa osatu dau Bitañok kultur elkarteak. Interneteko www.izurtza.org helbidean ipini dabe egindako lana ikusgai.

Orain arte, herriko etxeetan batutako argazki zaharren erakusketa antolatu dau, besteak beste Bitañok, elkarteak: etxez etxe antzinako argazkiak batu eta Udaltean erakusketan ipini ditue.

Izurtzaren iraganari buruzko elkartearen interes horrek eroan ditu irudiak ez ezik, antzinako kontuak be protagonisten ahotik jasotzera. Herritarrekin izandako elkarrizketetan batutako istorio eta kontakizun horrekin liburua osatu gura dabe. ■ I.E.



ABADIÑO

Parte-hartzean oinarritutako Berdintasun Planaren aurkezpen ekitaldia

2007ko azaroan abiatu eben Udaleko ordezkariak eta hainbat herritarrek plana osatzeko prozesua

Guaztenean Errota kultur etxeko iluntzeko ekitaldian aurkeztu dabe 2011 urtera arte emakume eta gizonen berdintasunerako oinarriak jasotzen dituen bigarren plana. Maite Blanco Udaleko berdintasun teknikaria, Maria Silvestre Emakundeko

zuzendaria, Argi Abad zinegotzia eta Jose Luis Navarro alkatea izan ziren egitasmoa aurkezten. Plana diseinatzeko burutu daben diagnosian eta helburuen zerrenda osatzerakoan herriko 11 elkarteren ordezkari izan direnak zein gainontzeko herritar guztiak gonbidatu ditue ekitaldira: herriko elkarte ugariaren ordezkariak zein Udaleko politikariak be izan dira Errotako ekitaldian. Maria Silvestre Emakundeko zuzendariaren berbaldia, Maite Blanco Udaleko berdintasun teknikariaren ahotiko planaren aurkezpena eta bakarrizketa saioa izan dira, lau helburu nagusi zehazten dituen II. Berdintasun Planaren aurkezpenean. “Genero ikuspegia Udaleko arlo guztietan txertatzea, emakumeen garapen

Herriko 11 elkartetako eta Udaleko ordezkariak hartu dabe plana diseinatzeko prozesuan parte

II. Berdintasun Plana osatzeko herritarrek zein Udaleko politikariak agertutako “inplikazioa” eskertu dabe



Udaleko ordezkariak eta Maria Silvestre Emakundeko zuzendaria izan ziren aurkezpenean. I.E.

pertsonal eta sozialerako baliabideak bermatzea eta laneko zein etxeko bizitza bateragarri egiteko neurriak hartzea, eta, emakumeen aurkako indarkeria desagertaraztea” dira datozen urteetarako zehaztutako helburu nagusiak.

Emakume eta gizonen berdintasunean pausuak emoteko, lau helburu nagusi zehazten ditu Planak

Plana osatzeko prozesu guztian Udaleko ordezkariak zein herritarrek erakutsitako inplikazioa da, Maite Blanco Udaleko berdintasunerako teknikariaren berbetan, planaren arrakasta ondoen adierazten dauena. ■ I.E.

Adin guztietako abadiñarrek ospatu eben Gaztetxearen hamaikagarrena

Urriaren 23an bete ziren 11 urte Abadiñoko Gaztetxea sortu eblela. Orain hamaika urte Gaztetxearen alde lanean hasitakoak zein euren semeak izan zeitezkeenak be batu ziren asteburuko ospakizunerako antolatutako ekitaldietan. Askotariko ekitaldiek erakarrira, adin guztietako herritarrek gerturatu ziren asteburuan Zelaletako Gaztetxeari “urte askorako” esatera.



Kokapen barria aztergai zaharren egoitza egiteko

Zaharren egoitza Udaletxearen eta eskolaren arteko lursailean eraikitzea aztertzen dabilz

Bizkaiko Aldundiak Durangaldean zabaltzea aurreikusi dauen zaharren egoitza Abadiñon egin daien lortzeko, “Gobernu Taldeak agertzen dauen ekimen falta” salatu dabe jeltzaleek martitzeneko udalbatzarrean. Aldundiak zaharren egoitza Abadiñon barik eskualdeko beste herri batean egiteko erabakia hartzeko arrisku larria” dago. Zaharren egoitza hartzeko proiektu teknikoa aztergai eblela, eta berau eraikitzeko leku aproposa Tornosolo trinkete alboko lursaila litzatekela adierazo eban Gobernu Taldeak urte hasieran. Orain, baina, egoitza bertan eraikitzeko gastua Udalarentzako jasanezina litzakeela-eta, Udaletxearen eta eskolaren arteko eremuan kokatzea aztertzen dabilzela erantzun eban Jose Luis Navarro alkateak. ■ I.E.

MAÑARIA

Haur eskola zerbitzua egonkortzen

Hezitzaile bi, bata lanaldi osoan eta bestea erdian dabilz ikasturte barrian joan zen udabarrian inauguratu eben Haur Eskolan lanean. Izan be, zerbitzua gurasoen lanorduetara moldatzeko beharrak haur eskola egun osoko ordutegian zabalik izatea eskatzen dau. Zerbitzua martxan ipini ebenean zegozen haurren kopurua hazten doa, gitxinaka: sei edo zazpi haur itxaroten ditue 2010 urte hasieran. Urtarrilean zabalduko dabe barriro izena emon gura dabenentzako epea, eta, Udalaren aurreikuspenen arabera, hamar bat haur jasoko ditu urtariletik aurrera. ■ I.E.

GALDERA:
Zelan deitzen da bihar Durangon eskualdeko dantzariak batuko dituen ekimena?

Izena: _____
Tel.: _____

Makatzeta jabetzerako lagun birendako afari-txartela zotz egingo dogu.

Bialdu erantzunak: Santa Ana, 6 Durango edo astelekaria@anboto.org helbideetara, Hiruaren azken alean agertuko da irabazlea.



ATXONDO

AHTaren ibilbideari buruzko jeltzaleen testu alternatiboa

Joan zen asteko udalbatzarrean Udal Gobernuak onartutako adierazpenagaz ez eben bat egin

Eusko Jauraritzako Garraio Sailari eta trenbide sareen ADIF erakundeari helarazitako idatzian “trena Apatako plaza- gitxira eraikitzea eka- rriko leuken Oinarrizko Egitasmoa martxan ipintzea suposatuko leu- ken pausorik ez da dela emon” eska- tu deutse EAJk.

Gobernu Taldearen eskariagaz bat egin barik, bigarren idatzi bat osatu dabe jeltzaleek

Joan zen asteko udalbatza- rrean, Oinarrizko Egitasmoa ber- tan behera izteko eskatzen eban Gobernu Taldearen mozinoagaz “ezin bat egin” dabela azaldu eban Buruaga zinegotziak, eta “testu alternatibo bat” prestatu eta bida- li ebela jeltzaleek aurreratu dau.

Jeltzaleek “Gobernu Taldeagaz izandako hartu-emonakez doguz ezagutzen”, dinotse AHTaren ardu- radunei, “ezta Gobernu Taldearen desjabetzen kontrako jarrera izan ete den Oinarrizko Egitasmoa barriro mahaigaineratzeko era- bakia hartzera eroan zaitueena”.

Gobernu Taldearen AHTagaz- ko politikagaz ez dagozela “ezelan be ados” nabarmendu dabe ida- tzian, baina, aldi berean, “hasie- rako egitasmoa berrartzea ez dogu logiko ikusten; Atxondori min gehien egingo deusana baita”, azpimarratu dabe. ■ I.E.

“Hasierako trazatura barriro bueltatzea ez dogu logikotzat jotzen, Atxondori min gehien egiten deusana da-eta”

Gizarte larrialdi egoeretarako aurrekontuaz

Eusko Jauraritzari “behar beste- ko aurrekontua jarri daiala gizar- te larrialdiko laguntzen arloan antzematen diren premia egoe- rei erantzuteko” eskatzen daben mozinoa eroan eben jeltzaleek joan zen asteko udalbatzarrerara. Zinegotziek aho batez onartu eben Udalaren gizarte laguntzetarako aurrekontuari buruzko ezinego- na islatzen dauen mozinoa.

“Gizarte larrialdi egoerei erantzuteko behar besteko aurrekontua jartzea” eskatu deusie Eusko Jauraritzari

Idatzian jasotzen denez, gizarte laguntza eskarien %75i erantzuteko baliabideak dagoze- la adierazi dau Jauraritzak. Larrialdi egoerei erantzuteko gai- nerako bitartekoak udalen kargu- koak lirakeela adierazi izana kri- tikatu deusie Jauraritzari. Jeltza- leek aurkeztutako mozinoaren alde bozkatu eta gaia Batzordee- tan lantzeko beharra agertu eban Udal Gobernuak. ■ I.E.

GARAI

Laguardiarako irteera astelehen honetan

Launa upategietarako irteera anto- latu dabe, Garain, astelehen hone- tarako; azaroaren 2rako. Bisita eta bazkaria sartzen dira egitarauan.

Goizeko 09:30ean ipini dabe ordua Errioxarako bidea hartze- ko. Herria eta instalazioak eza- gutu, eta goiz erdian, hamaiketa-

koagaz, indarrak hartuko ditue. Iberikoak eta beste hainbat jaki probatuko ditue, ardao dastake- tagaz lagunduta.

Eguerdiko 14:00etan upategi- ko jatetxeko menua ezagutuko

Herria eta upategia ezagutzeko aukera izango dabe, eta hamaiketakoagaz indarrak hartuko ditue

dabe parte-hartzaileek. Zainzu- riek hasiko dabe bazkaria, eta gero patatak jango ditue; zelan ez, errioxar erara. Horren ondoren, bildotsaren txanda izango da, entsaladagaz batera. Postrean gaz- taia eta irasagarra; frutarik be ez da faltako. Kafea eta kopagaz amai- tuko da jan-edana. Ardaoa Launa erreserba izango da.

Laguardiako upategia Berriz eta Mañariko familia baten esku dago. Launak ibilbide luzea edu- kiarren, eraikina barria da. ■ M.O.

Omenaldia eta jai giroa, Garaiko Dantzari Egunaren lehen edizinoan



A. Domínguez

Joan zen zapatuan ospatu zen, lehenengoz, Garaiko Dantzari Egu- na. Eguerdian kalejiragaz zabaldu eben eguna, eta horren osteko dan- tza saioa izan zen eguneko zita nagusia. Guztira, 120 herritarrek parte hartu eben ekitaldian; 8 tal- de mutilenak izan ziren, 6 neske- nak eta bakarra umeena. Horree- tatik guztietatik hamabi, 60 urte- tik gorakoak ziren, eta eurei omenaldia egiteko aprobetxatu eben, argazkian ikusi leitekenez.

Dantza saioaren ondoren baz- kaltzeko elkartu ziren dantzariak eta ingurukoak: denera, 250 lagun. Erromeriagaz amaitu eben eguna, jai giroan.

IURRETA

Franz Schuberten musikagaz abiatuko dabe Musikaldia



Impromptu

Ohituta ez dagoen publikoari musika klasikoa hurreratu gura deusan Impromptu proiektuagaz, Schuberten obra eskainiz abiatuko dabe, aurten, Mikel Deuna kultur elkarteak eratuta- ko Musikaldia. Azaroaren 6an jarri dabe hitzordua 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean. Musika barrokoa eta klasikoa eskaini- ko dau Iruñeko Tafelmusik Ensemblek, hilaren 7an, eta 14an Bogoroditsie eta Bartolome Ertzilla abesbatzek jardungo dabe. Kontzertu biok Aita San Migel elizan izango dira, 19:30ean.

DURANGO

Aukera berdintasunari eta feminismoari buruz jardungo dabe

Aukera berdintasunari eta feminismoari buruz, euskaraz hitze- giteko prest? jabekuntza ikastaroa antolatu dabe Andragunean, eta parte hartzeko dei zabala egin dabe. Gune euskalduna sor- tu gura dabe, andrentzako “erreferentea”. Era berean, Jabekun- tza Eskolan iraungo dauen talde euskalduna lortu gura da. Tal- dean, jabekuntzagaz, aukera berdintasunagaz eta feminismoa- gaz lotutako gaiak proposatuko dituen dinamizatzaile bat egongo da. Astelehenetan batuko dira, 18:30etik 20:00etara, Andra- gunean bertan (94 465 70 92 / andragunea@durango-udala.net). Emakumeak eta euskal literatura mintegia be antolatu dabe. Eguenetan elkartu ohi dira, 10:00etatik 12:00etara, Andragunean.

DURANGALDEA

Eskualdeko gazte mugimenduaren topaketak egingo ditue Abadiñon

Durangaldeko Gazte Mugimenduaren Topa- ketak izango ditue aste- buruan, Abadiñon. Gaurhasi eta azaroaren 1era arte, borroka, feminismoa, aisialdia, komunikazioa, sexua- litatea, AHTa, ikasle mugimendua eta sor- kuntza izango ditue bertaratu direnek aztergai Gaztetxean. Berbaldiak, mahai- inguruak, tailerrak eta kontzertuak eratu ditue, besteak beste.



Gazte mugimendua

‘Zahar eta barri berbetan gabiz’ lelopean dator Berbalagun

Durango, Elorrio, Zaldibar, Berriz eta Abadiñon jarriko ditue martxan Berbalagun egitasmoak azaroan eta izena emoteko deialdi zabala egin dabe ekimenaren bultzatzaileek. *Zahar eta barri berbetan gabiz*, horixe da Berbalagunen helburu naga- sia Durangaldean, eta laster Durangaldeko Amankomunazgoa osatzen daben beste herrien inplikazioa be lortu gura dabe. Euskara Zerbitzuak, herrietako euskara elkarteak, Durangal- deko AEK, Durangoko Udal Euskaltegia eta Hizkuntza Eskola dira bultzatzaileak: urangalde@ae.org / 639 400 786.

BERBAZ >

“Durangoko jaiek A gripearen kasuen gorakada handia eragin dabe”

Durangoko osasun zerbitzuen arabera, 25 urte arteko gazteen artean ikusi ditue A gripe kasu gehien. Azaldu deuskuenez, 40 urtetik gorakoen artean oso kasu gitxi agertu dira Durangaldean

Durangoko jaiek biharamun bikotxa eragin deusko askori. Jente pilaketa dagoen lekua gripea kutsatzeko aipose-na ei da. Beraz, jaiak amaituta, Durangaldeko osasun zerbitzuak gainezka daukaguz. Jose Luis Balentziaga Durangoko osasun zerbitzuetako arduradunak dinonez, kasu guztiak hartu ahal izateko antolaketa barria prestatzen dabilz.

Durangoko jaien eragina nabaritu dozue. Bardin gertatu da Galdakaon. Gorakada izan dau jaietan, eta beste gorakada bat aurreikusten dogu azaroan tenperatura jaitsieragaz batera.

Zenbat kasu?

Euskal Autonomia Erkidegoko tasak neurtzerakoan, 100.000 biztanleko 210 kasu izan zen azkeneko batez bestekoa. Durangon ia 1.000 kasu izan doguz. Ez da zehazten ohiko gripea edo A gripea den. Baina, ikusten gabilzen %90 A gripea da.

Txertoa noizko?

Azaroaren 16an hastea itxaroten dogu.

Nork jasoko dau txertoa?

Osasun zerbitzuetako langileendako, zaharren egoitzetako beharginendako, haurdun dagozenendako eta gaitasun kronikoren bat daukienendako izango da. Ohiko gripeagaz 65 urtetik gorakoek hartu izan dabe txertoa, baina kasu honetan ez da adina izango nori jarri erabakitzeke modua.

Osagile batzuk txertoa ez dabela hartuko esan dabe. Zuk zer aukeratuko dozu? Nik neuk txertoa hartzeko erabakia hartu dot. Txertoa denbora laburrean egin behar izan dabe. Atzetik OME (Osasunaren Mundu Erakundea) dago, eta babes eta segurtasun guztia daukala ez daukat zalantzarik, beste txertoen moduan.

Jenteak txertoagaz zalantzak daukaz?

Ikusten dogu A gripea bestea baino askoz arinagoa dela. Bi hiru egunean pasatuta badago, zertarako hartu, galdetzen dabe askok. Industriaren interese be zalantzak sortzen ditue. Osasun aldetik ez dot uste arazo larrik dagoenik. Batez be, osasun zerbitzuendako lan handia da. Kontsulta asko bikoizten gabilz. Kasu kopurua jaisteko txertoa baliabide bat da.

Beste neurri batzuk be badagoz.

Gaitoz gero, etxean gelditzea sukarra joan eta bi egunera arte. Eskuak garbitu, eztula egiterakoan besoa jarri, musuzapia erabiliz gero bota... Hainbat neurri hartu leiteke.



Iban Gorriti

“Domekan Durangoko larrialdietan 200 lagun izan genduzen; Galdakaoko ospitalean beste”

Hain kutsakorra al da?

Batez be, gazteen artean gertatu da kutsadura gehien. Kasuen artean 40 urtetik gora ia ez dogu A griperik ikusi. Kasuen %80 inguru 0tik 25 urte bitartekoak dira. Beste gripeagaz kontrakoa izaten da. Batzuek dinoe birus

“Sintomengaitik bakarrik, A gripea eta gripe arrunta ezin leiketez bereiztu”

honen antzekoren bategaz bere sasoian kontaktua izan genduelako izan leitekela. Urtero-urtero beste txertoa hartu dauenak beste defentsa batzuk izan leikezela be badinoe beste batzuek. Hori guztia, baina, frogatu egin beharko da.

Jose Luis Balentziaga •

Durangoko osasun zerbitzuen arduraduna

▪ Markinarra

▪ Iurretako medikua

Tamiflua errezetatzen dozue?.

Tamiflu oso gitxi errezetatu dogu. Uztailaren amaieratik hementxe daukagu, eta 20 lagun inguruk baino ez dabe hartu. Gainerakoek paracetamola hartu dabe. Ospitalera be oso jente gitxi bidali dogu.

Beste gripearengandik zelan bereiztu geinke A gripea?

Alde medikotik, sintomen arabera ezin leiteke bereiztu. Betiko gripeak moko gehiago sortzen ditu. Gripe honek, besteak beste, sukarra eta gorputzean makaltasuna sortzen ditu.

Alarma soziala somatzen dozu?

Jentea ez da ikarak jota etortzen. Jarra arduratsua daukie. Uztailaren Argentinako eta Mexikoko kasuak ikusita, ez genkien zer gertatuko zen hemen. Uztailaren Zelanda Berriko eta Australiako kasuak ikusi genduzen. Gauzak ondo jakin barik politikoak berbetan hasi ziren, komunikabideak be bai. Irudiak ikusita jentea maskarilla eta guanteak erosten hasi zen, baina alperrik. Hasierako instrukzioek zinoen zazpi egun etxean egon behar zela, baina orain ez dela horrela ikusi dogu. Beste interes batzuk be egongo dira.

Larrialdiz zerbitzuak gainezka daukazuez.

Domekan Durangoko larrialdietara 200 lagun etorri ziren. Galdakaoko ospitalera beste. Halan be, jentea lasai etortzen da hona. ■ J. Guenetxea

EKONOMIA[>]

> DURANGALDEA

Enplegua sortzeko laguntzak udalentzat

Espainiako Gobernuak 233,2 milioi banatuko ditu Bizkaia, Gipuzkoa eta Araban

Espaniako Gobernuaren Tokiko Enplegu eta Jasangarritasunerako Fondoaren bitartez, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako udalen artean 233,2 milioi euro banatuko ditue. Biztanleriaren arabera banatuko da dirua, eta 10.000 enplegu sortzea aurreikusi dabe. Bizkaia 124 milioi jaso-ko leuez; Gipuzkoak 75,8 milioi eta Arabak 33,5 milioi.

Eraikuntza sektorea indartzeko Espainiako Gobernuaren Tokiko Inbertsioen Estatu Fondoaren bitartez bideratutako laguntzak ordezkatu gura ditu urtarilaren leian indarrean sartuko denak; denera, 5.000 milioi euro. Ikuspuntu ekonomiko, ingurumeneko eta sozialetik "jasangarriak" diren egi-

Tokiko Enplegua eta Jasangarritasuna sustatzeko Fondoak 2010eko urtarilaren 1ean sartuko da indarrean

Ikuspuntu ekonomiko, ingurumeneko eta sozialetik "jasangarriak" diren egitasmoak finantzatzeko dira

tasmoak finantzatzeko erabiliko da dirua; udalek jasotakoaren %20 gastu arruntari aurre egiteko erabili leiteke.

Hainbat egitasmo laguntzeko Enpresa parkeak, parke zientifiko edo teknologikoak finantzatzera bideratu leiteke dirua. Baita telekomunikazio sareetan sartzeko egitasmoak, energia aurreztera bideratutako ekimenak eta ur baliabideekin lotutakoak finantzatzera be, hiri-mugikortasun jasangarria lortzeko obretara ez eze. Gizarte zerbitzu zein osasun zentroak, kultur edo kirol azpiegiturak sortzera edo gizarte zerbitzuekin lotutako gastu arruntara be bideratu leiteke dirua. ■ A.B.

Autoa erosteko laguntzak eskatzeko epea luzatu dabe

Ibilgailuak erosteko 2000E planaren laguntzak 2010. urtea amaitu arte luzatuko ditueela jakin eragin dau Espainiako Gobernuak Industria ministroak. Maiatzean jarri eben martxan auto barria erosteko plana. Denera, 40 milioi euro bideratuko ditu Espainiako Gobernuak autoen salmenta sustatzeko, eta laguntzok 80.000 auto finantzatzeko ditue.

Dámaso Casado Durangon Bestalde, UGT-Euskadiko idazkari nagusia, Dámaso Casado, egon da Durangon. Enplegu-erregulazio espedienteen egoera eta horreen ondorioak azaltzeko eskualdeetan antolatutako batzarren haritik bertaratu da. EAEko Elkarrizketa Sozialerako akordioak eta egoera sozio-ekonomikoa izan zituen berba UGT-Euskadiko idazkari nagusiak.

■ kolaborazinoa



Augusto Uriarte Behargintza

Arrain freskoa

Lehenengo egunean arraina erostera joan nitzenean, saltzeko zeukan arrain guztia freskoa zela ziurtatu zidan arrainsaltzaileak. Eztabaida-txoa izan nuen berarekin, eta azkenean ez erostea erabaki nuen, ziur nengoelako hark aipatzen zuen freskurarik ez zegoela jeneroan. Begiei begiratuta aski zen igartzeko denboratxo bat zeramatela hegalei eragin gabe.

Gaur egungo Euskal Gobernuarekin antzeko zerbait gertatzen da. Haize berriak iritsi direla sinestarazi gura digute, modu modernoagoan egingo dituztela gauzak, "XXI. mendeko estiloan", baina begietara begiratu beharrik gabe frogatu daiteke Jaurilaritza hau freskurarik gabekoa dela.

Enplegu arloan politika aktiboaren konpetentzia traspasatzea adostu zuten. Luzaro zebiltzan horren eske, eta gauzatze garaia iritsi denean konturatu dira ez dakitela eskuduntza hori kudeatzen, lehendik zeuden moduetatik harago. Ez dira zioten bezain "Obama", ez dira agertu gura duten bezain burutsuak, ez dira nahi luketen bezain freskoak.

Enplegu sailburuordeak (edo sailburuorde zenak, joan zen ostiralean dimisioa eman baitzuen) XXI. mendeko Euskal Enplegu Zerbitzua artikulatu nahi zutela esan zidan. Zer barregura eragiten didan esamoldea gogoratzek, azkenean, egingo dutena oraingo INEMaren pareko zerbait baita, Gasteiztik kudeatua. Hori da hori freskura! Ez dago estilo berririk. Lehendakaritzako zezenak harrapatu ditu, eta izugarri ari zaie kostatzen tresneria martxan jartzea. Arrain honek ez dauka indar handirik hegalei eragiteko, nik uste. Ez dakite nola artikulatu maila administratibo ugarien arteko harremana. Udalekiko lankidetzari buruz ari naiz. Lakuatik agindu nahi dute autoritatearen bidez, eta ez dira ohartzen eredu hori zer zaharkitua den.

Zoriontsu izan ziren boterea eskuratu zutenean. Hori denei gertatzen zaie. Pentsatu zuten karguak hartuta, asko kostatu eta gero, eginda zegoela dena, baina hile batzuk joan eta gero ohartu dira zorion perfektua zine-man baino ez dagoela.

Akuilu elkarteko baserritar gazteen martxak Durango izan eban helmuga

Azpeititik Durangora, baserritar gazteak elkartzeko martxa berezia antolatu eban, joan zen asteburuan, Akuilu Euskal Herriko baserritar gazteen taldeak. *Baserrria da etorkizuna* goiburua, "tokian tokiko produktuak eta sasoian sasoikoak produzitu eta kontsumituko dituen eredu baten" sinesten daben baserritarrek egin eben martxa. Mallabitik sartu ziren Durangaldera, zapatuan. Biharamunean, barriz, Berriz, Abadiño eta Durangon izan ziren. Euskal Herriko hainbat baserritar gaztek azoka antolatu eben Durangon, eta, ondoren, bazkaria be izan eben azoka horretan parte hartu eben guztiek. ■ A.B.



Andra Mariko elizpean azoka antolatu eban Euskal Herriko hainbat baserritar gaztek. J. Guenetxea

anboto, durangaldeko astekaria

Egin zaitez harpidedun!

durangaldeko **berriak** ezagutzeko

harpidedun egiteko, deitu 94 681 65 58 telefonora edo harpidedun@anboto.org-ra zure izen-abizen eta helbidea bidali

KULTURA[>]



Argazkia: Ana Dominguez

MUSIKA > EMANALDIA

XV. Txistu Kontzertuan, lau pieza estreinakoz

Zapatuan, Durangoko Landako Erakustazokan ospatu du Silboberri elkarteak XV. Txistu Kontzertua. Urtemugak berak eragiten duenaz gainera, emozio bereziaz bizi izan zuten elkartekideek urriaren 24koa, txistuagaz jotzeko lau konposizioren estreinaldia ere egin zutelako.

Bederatzi lan izan ziren Landakon entzungai, Durangaldeko eta Euskal Herriko musikariek jotakoak. Horietatik lau estreinakoz jo zituzten: *Toccatina*, *Itxas kanta*, *Zortzikoari gorazarrea* eta *Plateruena* estreinatuz zituzten jendaurrean. Aurreko hamalau edizioetan ere egin izan duten moduan, txistuaren doinuak beste instrumentu batzuekin uztar-

tuta eskaini zituzten XV. Kontzertuan ere: txalaparta, metal, eta perkusio doinuekin, eta abesbatzen ahotsekin jo zituzten kanta.

Txistuaren doinua eta Kriskitin taldearen dantza emanaldia aldi berean gozatzeko aukera izan zen zapatuko Landako erakustazokakoa baita. Bestalde, Mikel Laboaren omenezko *Txoria txori* kanta ere eskaini zuten txistulariek XV. kontzertuan.

Txistulari, abeslari eta musikarien artean, ia berrehun lagun batu ziren Silboberri elkarteak antolatutako emanaldira: Durangoko Bogoroditsie eta Doinu Zahar abesbatzek eta Kriskitin dantza taldeek ere hartu zuten zapatuko emanaldian parte. ■ I.E.

Txistulari, abeslari eta musikarien artean 200 lagun batu ziren

12 Miren Amurizaren hegaldia

Herrikidea bertatik bertara jarraitu zuen zapatuan Gorka Lazkanok bertsolari berriztarrak Laudion, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako saioan, eta kronikan utzi digu.



13

Txiri-Txiri elkarteak 10 urte

Azaroaren 7an, trikiti, pandero, alboka eta dultzaina doinuak zabalduz ospatuko dute Txiri-Txiri elkarteak musikariek elkartu zireneko hamarkada.

POESIA > ERREZITALDIA

'Egunsentiaren esku izoztuak' laneko poemak Letek berak irakurrita

Euskadi Literatur Saria jaso duten olerkiak errezitatuko ditu Letek, bihar, Plateruenean



T. Angoitia

Urriaren azkeneko egunean egingo du iazko Durangoko Azokan aurkeztutako *Egunsentiaren esku izoztuak* liburuan jasotako olerkien irakurketa Xabier Lete idazle oiar-tzuarrak.

Martitzen honetan jakinarazi duten Euskadi Literatur Saria jaso duen *Egunsentiaren esku izoz-*

tuak bere poema liburuan jasotako olerkiak irakurriko ditu Xabier Letek. Literatur sariketaren epai-mahaiak azaldu duenez, "klasikotasuna, ahotsaren sendotasuna eta aberastasun diskurtsiboa" dira Leteren liburua iazko onentzat hautatzera bultzatu dituen.

Saria jaso duten olerki horiek, Xabier Lete idazlearen ahotsean, eta Joxan Goikoetxearen musikak lagunduta entzuteko aukera da Plateruenean. Irakurtaldi "intentso, indartsu eta sentitua" entzuteko aukera legez aurkeztu digute urriaren azken egunean, bihar, 20:00etan izango duguna. Idazlearen azken urteetako bizipenen isla dira *Egunsentiaren esku izoztuak* osatzen duten olerkiak.

Joxan Goikoetxearen
laguntzaz errezitatu-
ko ditu liburuko poemak

HISTORIA > BERBALDIAK

Pekatuak, krimena eta penitentzia Erdi Aroan, literaturatik eta artetik

Azaroaren 5ean eta 6an egingo dira Krimenaren Historia Zentroak antolatutako mahai-inguruak

Izenburuan aipatutakoa, *Pekatuak, krimena eta penitentzia Erdi Aroan*, zehazki literaturaren eta artearen bitartez aztertzea da Krimenaren Historia Zentroan udazken honetarako antolatu dituzten mahai-inguru biek inuzatzen dituzten proposamenak.

Azaroaren 5ean eta 6an, Durangoko Arte eta Historia Museoan izango dira mahai-inguruak. Durangaldearen historia pekatuak eta zigorra oso gertutik

bizi izandakoa delako heresia eta sorginkeria egotzitakoen historia lekuko eta artearen historiaren alorrean jarduten duten ikertzaileek sarri alboratua izaten dutelako hautatu dute mahai-inguru VII. edizioko gai nagusi moduan, antolatzaileek nabarmendu dutenez. Herriarguztiak eskualdearen iragan horretaz jabetu ahal izateko baliabideak modu didaktikoan eskaintzea da antolatzaileen helburua. ■ I.E.



GEURE DURANGALDEA

Jose Luis Lizundia
Euskaltzaina

Lurretaren hiribide eta etorbidea

Azaroaren 13an beteko dira 20 urte, horretarako eskuduntza daukien Batzar Nagusietan onartu genduela lurretako elizatearen Durangotik banandu eta udalerriri bihurtzea.

Geroztik, sortutako administrazioak udaltasun garapenerako erabaki asko hartu ditu. Baina, neure ustez, lurretak badauka bere hirigintza ikuspegitik garapen arazo larri bat eginkizun, hiribide-etorbidearen premia. Montoitik Elezaldara zabaltzen joan ahala, hor dauka erdibitzen dauen N-634a; hots, Donostia -A Coruña errepidea. Lurretarek egin izan ditue euren agerraldiak arazo horretatik libratzeko: Bilbo-Behobia, hots, A-68a "liberatzea" aldarrikatzea etab.

1991-1994 legegintzaldian, herri-lanetako foru diputatuari eskatu geuntsan Matienaren zeharbide arazo larria soluzionatzeko zela-eta, saihesbideen planteamendu orokor bat hartu behar ebela foru eta udal administrazioek; hots, Eorrio, Atxondo, Abadiño, Durango eta lurretakoek, alegia, Beasain-Durango errepide ingurukoek. Bergaretxe jaunak jaramon egin eta bilera batera deitu zituen udal ordezkariok, eta ez eban estudio amankomun bat egitea lortu. Prentsan be atara zen kontua, alkate baten haserretarako.

Prentsan argitaratua izan zen nire proposamena be: baliaturik transizino garaitik egin kizun zegoela Montorretatik-Murueta saihesbidea (gaurko Sabeco-Eroski) eta Garaizar ingurutik autopistaren Hegoal-detik peajeraino errepide paraleloa egin. Hain zuzen, Aldundiak, bihar-etzirako, hasieratxo moduko bat itzi ebala ikusi leiteke Garaizarko etxebide barrenean.

Zornotzako Udalak autopista "liberatzeko" hainbeste aldarrikapen antzu eta besteren ostean, arazoaren soluzinoa autopistaren albotik errepidea egitea izan zen. Valentziako Vinalopó eskualdean, 80ko hamarkadan, handik pasatukerakin genduen hain hurrean dagoen Elda eta Petrer udalerrien ondoko autopistaren "kaltea" soluzionatzeko errepide paraleloa zela, eta ez beste ezer utopiko.

BERTSOLARITZA > TXAPELKETA

kronika

Joan zen zapatuan jokatu zen Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa-ko azkeneko kanporaketa saioa Laudion. Onintza Enbeita, Jon Martin, Iñigo Izagirre, Arkaitz Oiarzabal, Fredi Paia eta Miren Amurizak kantatu eben bertan. Saio dotorea eta parekatua osatu eban seikoteak, eta azkenean berriztarraigailendu. Ederto ibilizan Miren, bertsoak txukun josi, eta umore puntua ipini eban, gainera!

Zortziko nagusian, Izagirregaz, orain aste bi Donostian egin zen manifestaziora joatea tokau jakon. Senda hasi zen Miren, arrazoi sinesgarriak emonez, eta bertsoetik bertsoa bere buruagan sinesten hasi zela esango neuke. Txikian Jon Martinen etxera afaltzera joan zen eta Jon komunitik bueltan etorri zenerako, Miren erdi biluzik zegoen.

Txoriak eurak legez
ibili zen Miren, kantari
eta oso altu hegaz

Gogor hasi zen Jon beteta egon arren postrearentzat lekua bazeukala esanez, baina Miren ek aprapos kalefazioa igo izana leporatu eutsan Joni, eta azkenean postreterik jan barik itzi eban oiartzuarra. Puntu erantzunean be seguru ikusi genduen, baina hamarrek txikian jo eban goia.

Fredi Paiagaz kantatzea egokitu jakon, eta sekulako saioa osatu eben biek: zahar etxe batean denbora luzez bizi zen amamatxoaren Miren; Fredik barriz lehenengo eguna eban zahar etxean, eta Mirenen gelakidea izateatokatu jakon. Gozo hasi eban berriztarrek bertsoaldia, amamatxoaren papelean sartuta, bere konpainia eskertuko ebala esanez Frediri, txoriekaz berbetan aspertuta zegoela. Frediren erantzuna ederra izan zen: pajarok galanta zela bera!

Mirenek, orde, kokiltzen ez den horietakoa dela erakutsi eban, eta lagunaren berba jokoari beste berba joko zoragarri batez erantzun eutsan, "pajaritos dantzatzeko ikasiko dogu" esanez. Fredi orduan viagra aprobetako ordua heldu zela esan eban, eta Mirenek, oster, viagraren beharrik ez ebala edukiko; azkenean, biak eskutik helduta hiltzeko desioa aipatu eban Fredik.

Bertsoaldi ederra baino ederragoa izan zen honen ostean kartzelako lanari ekin eutsen bertsolariet, eta han bepolitik bete zituen bere hiru bertsoak Mirenek. Agian ez eban istorioa ondoegi borobildu, baina bigarren bertsoa benetan be polita izan zen.

Txoriak eurak legez ibili zen Miren zapatuan, kantari, hegaz eta oso altu, gainera! Hirugarren ordezkaria dauka Durangaldeak finalerdietan, Unai eta Igorregaz batera. Animo! Zorte on hiruroi!

Gorka Lazkano

Miren Amuriza, bertsotan hegaz altu eginez



MUSIKA> URTEURRENA

Txiri-Txiri “ofizialki” talde moduan sortu zela 10 urte dira aurten, eta urteurrenena ospatzeko Plateruenean bazkaria eta 18:30era-ko Luhartz taldearen erromeria antolatu dituzte, azaroaren 7rako. Eguerdian, 12:30ean Andra Mariko elizpean batuko dira hamarkada ospatzeko, eta kalejiran abiatuko dira Durangon zehar. Ospakizunetan parte hartu gura duten guztientzako eskuragai ipini dituzte txartelak, bazkaria egingo duten Plateruenean bertan.

Taldeko partaide izan diren, edo kolaboratu izan duten 50 lagun gonbidatu dituzte ospakizunetara, eta herritar guztiak ere gonbidatu dituzte. Diotenez, bi urtean aurrezten jardun dute 10. urteurren ekitaldi hau antolatu ahal izateko.

Andra Maritik abiatuko duten kalejirarekin hasiko dituzte ekitaldiak

Durangoko Merkatu Plazako lokal batean hasi zen Txiri-Txiri biltzen, ordura arte trikitixa, panderoa eta alboka euren etxeetan jotzen zuten lagunak elkartzuz. Abadiñoko San Blaseta eta Urkiolako San Antonioetara joaten hasi ziren elkarrekin landutako kantak jotzen. Taldea sortzeko erabakia 1999an hartu zuten, eta taldekide aldaketa batzuk ere gertatu arren, dozena bat lagunek jarraitzen dute taldean.

“Durangoko Merkatu Plazako lokalean biltzen ginen hasierako urteetan”

Oholtza gainean baino, kalean jotzen gozatzen dute gehien taldekideek

Taldekideetako batek gus-tuko izanik, hasieran oholtza gainetik ere aritu ei ziren, baina guztiek gehien gozatzeko modua kalean jotzea izan dute: “oholtza gainean batzuek disfrutatzen dute, kalean askoz gehiago gozatzen dogu denok”.

Orozkon ospatzen duten Gaztaina Eguna girotzen egon zen Txiri-Txiri asteburuan, eta euria egin arren Durangoko jaietan ere kalez kale ibili dira, bi egunetan, euren doinuak zabaltzen. Bizkaiko herrietan asko mugitzen da taldea, eta

Trikiti doinuak pausoz pauso eta kalejiran zabaltzen: Txiri-Txiri

Soinua, panderoa, alboka eta dultzaina jotzen ikasten zebiltzan lagunak etxetik kanpora eta taldean jotzeko elkartzetik sortu zen, 1999 urtean, Txiri-Txiri taldea. Askotan inguruko herrietako jaietan ibili izan dira euren musika kalez kale zabaltzen. Azaroaren 7an, Plateruenean daukate urteurren jaia



Ana Dominguez

hamar urteotan urtero-urtero hutsikegin barik bueltatzen dira jaietara. Izan ere, jaien arabera mugitzen da taldea: hutsegin ezineko hitzorduak lotu dituzte azken urteetan.

Abestien zerrendan ere, Fasioren *Martxa* eta *Urkiola* kantak, esaterako, “saio guztietan irtetzen dira”, esan digute. Berrien artean, gutxinaka lantzen doazenen artean, Mikel Laboaren *Martxa baten lehen notak* dago adibidez, eta “San Faustoetako gure ‘greatest hit’-a izan da azken hori”, diote.

Trikitixa, panderoa, dultzaina eta alboka jotzen dituzte Txiri-Txiriko musikariek. Jendeak musika eskolatan ikasten duela instrumentuak jotzen, baina musika euren etxe barruan gertatzen dela ohartu eta hutsune horri erantzuteko helburuz sortu zutela taldea kontatu digute Itxaso eta Oier taldekideek.

Hutsune hori gaur egun ere badagoela, eta kalean eta elkarrekin asko ikasteko aukera dagoela frogatu dute: etxean baino gehiago gozatzen du musikariak zaletasuna kalean. Sasoi batean domeketan Durangoko kaleetan izaten zen musikak sortutako giroa faltan botatzen dute askok.

Emanaldi gehienak kalejiretan izaten dituzte, eta ezkon-tzetan ere sarri jo izan dute: ezkongaiak eurek kontratatuta, edo lagun koadrilaren opari bezala. Trikitia dantzatzea gus-tuko duen jendeak deitzen diete. Berbaro elkarrearen urteurrenena ospatzeko Plateruenean izan zen bazkarian ere hartu zuten parte, joan zen hilean.


Lehenago, Anbotoko Hauspoak edo Bagabiz taldeek egi-

ten zuten bideari jarraituz egiten dituzte kalejirak Txiri-Txirikoek, eta modu horretan kalean ibili eta jo egiten duten apurretakoak dira Duragaldean.

Hamalau urte inguru zute-nean atera ziren lehenengoz jendaurrera, kalean jotzera. Dagoeneko hamar urte dira Mañaria, Elorrio, Durango, Oromiño, Abadiño eta Garaiko partaideak elkartu eta Txiri-Txiri taldea osatu zutela. Kalejiretara

dozena bat lagun joaten direla kontatu digute. Taldearen sorreran ez bezala, bestelako ardurak dituzte taldekideek; guraso dira batzuk, bakoitzak bere lana dauka... Horregatik, diote, gero eta zailagoa da elkartzea.

Hala ere, asteazkenero Landako kiroldegian batzen jarraitzen dute. Eta uda sasoian, hilean bi irteera egiten eta inguruko jaietan euren doinuekin alaitasuna zabaltzen. ■ I.E.



Ateak zabalik musikari berriak taldean hartzeko

Trikiti, pandero, dultzaina zein alboka jotzen dakien jendea taldean hartzeko gogoia dutela adierazi digute Txiri-Txiri taldekideek: zabalik omen dago taldea. Nahi duenak txiritxirikhamarurte@gmail.com interneteko helbidea baliatu dezake harremanetan jartzeko. Eguazteneko entseguetako ateak zabalik dituztela diote: Landako kiroldegi azpikaldeko lokal-tan, 20:00etan batzen dira eguazteneko.

Trikitixa, panderoa, dultzaina edo alboka jotzen dakiten musikariei kalean jotzera ausartzeko behar duten bultzadaxoa emanez laguntzeko prest daude Txiri-Txiriko taldekideak.

MUSIKA> EMANALDIA

Palestinatik ekarritako bizipenak eta musikak

'CheckPoint Rock' filmaren proiektzioa, hitzaldia eta kontzertua azaroaren 6an, Plateruenean

Hil honetan aurkeztu duten Fermin Muguruza eta Javier Corcuera-ren Palestinaren eta bertan sortutako musikaren inguruko *CheckPoint Rock* filmaren emanaldia izango da, azaroaren 6an 18:00etan, Durangoko Plateruenean. Arratsaldea osatzeko, gainera, euren esperientziari buruzko berbaldia eskainiko dute egileek Platerueneko hitzorduan.

Filmaren proiektzioaren ondoren izango da egileen berbaldia

Orain zazpi urteko Aste Santuan Europako hainbat herrialdeetatik joandako ordezkariak batekin Palestinara bidaiatzeko aukera izan zuen Fermin Muguruza musikari irundarrak. Hain

zuzen ere, orduko bizipenak dira *CheckPoint Rock* proiektuaren sorburuan daudenak; bidai hura dago *CheckPoint Rock* filmaren, baina baita musikari euskaldunen eta palestinarren hartu-emanaren oinarrian. Palestinan zegoela Palestinako orduko Arafat presidentearen Ramalah-ko egoitzaren setioa bertatik bertara bizi izan zuen Fermin Muguruzak.

Berezia da azaroaren 6ko Platerueneko hitzordua, ez bakarrik *CheckPoint Rock* dokumentalaren emanaldia eta berbaldia aukeran ditugulako, baizik eta, horren harira, Palestinako DAM hip-hop taldea eta Euskal Herriko Bad Sound System taldeen kontzertua ere izango delako. ■ I.E.

Palestinako DAM
hip-hop taldearen
zuzeneko emanaldia

ANTZERKIA> EMANALDIA

Txintxaun Kolektiboa: umeei zuzenduta eta heriotzaz

Berrizko Txintxaun Kolektiboak umeei zuzenduta egin duen lehenengo antzezlanaren aurkeztu du Berrizko kultur etxean gaur arratsaldean

Tomas Gavira kazetari eta antzerkirako gidoiaren idazlearen testuaren euskarazko itzulpena da Txintxaun Kolektiboak antzezlan hau sortzeko moldatu duena. Berrizko antzerki taldea sortu zutenetik, lehenengoz egin duten haurrei zuzendutako antzezlanaren gaur Kultur Etxean aurkeztuko duten *Anita Ilezikin*. Gaur, 17:30ean, oholtzaratuko dute Rosa Martinez Alcoceren zuzendaritzarekin osatutako lana.

Heriotzari buruzko gidoiak ez direlako batere ohikoak –are gutxiago umeei zuzendutako antzezlanetan– hautatu dute testua, Txintxauneko taldekideek azaldu dutenez. Umeei zuzendua eta heriotzari buruzkoa baita *Anita Ilezikin* lana.

Gizartean tabu izaten den heriotzaren gaia, haurrentzako zein gurasontzako ere proposa dela nabarmentzen dute: seme-



alabekiko komunikazioaz gogoe-ta egiteko gaiak aurkituko dituzte antzezlanean gurasoek ere. Familia osoak ikusteko apropos da, beraz, Txintxaun Kolektiboko kideek euren herrian, Berrizen aurkezteko prestatu duten *Anita hilezikin* lana.

Txintxaun-en tailerrean

Azaroan hasi eta martxora arte, eguaztenero batuko izango den Antzerki Tailerra kudeatzen du Txintxaun taldeak. Joko dramatikoaren landuko duten aurtengo saioetan parte hartzeko izena emateko epea zabalik dago. ■ I.E.

TAILERRAK> AURKEZPENA

Gazteentzako Ikima tailerren aurkezpena

Iurretako eta Durangoko liburutegietan izango dira 14 urtetik gorakoei zuzenduriko Ikima tailerrak

Iurretako Bibliotekan eta Durangoko Udal Liburutegian ipini zuten martxan, iaz, 14 urtetik gorako gazteei zuzenduriko sorkuntzarako hainbat adierazpide lantzen dituen tailer eskaintza.

Bariku arratsaldeetan, Durango eta Iurretako liburutegietan elkartu ziren, hainbat adierazpidegaraz lan egiteko.

Ilustrazioa, ibilaldi
literarioak, hip-hopa,
laburmetraiak...

Aurten ere martxan ipiniko dituzten tailerrei buruzko informazioa zabaltzeko, gaur arratsaldean Durangoko Udal Liburutegian izan da aurkezpena. Alboko argazkian ikusten den iazko edizioan bezala, aurten ere, komikigintza da gazteek Ikima tailerrean ezagutu eta landu ahaliko duten adierazpideetako bat.

Komikigintzaz gainera, ilustrazioa, photoshopa, laburmetraiak, hip-hopa, bideo edizioa, art-toys, ibilaldi literarioak eta idazkuntza landuko dituzte gazteek, besteak beste, Ikima tailerren aurtengo edizioan.



Atarte kultur taldeak
kudeatuko ditu, bigarren
urtez, Ikima tailerrak

Durango eta Iurretako Bibliotekak babestu eta Atarte Kultur Produktzioak taldeak kudeatzen dituen Ikima tailerren funtsa, gazteek sormena landu eta orotariko adierazpideak baliatzen ikasiz gozatzea da. ■ I.E.

DOKUMENTALA>

'Barraques, la ciudad olvidada' azaroko Iturriko dokumentala

Katalunian ekoizitako *Barraques, la ciudad olvidada* filma da azaroaren 5ean, 19:30ean, Etorriko Iturri kultur etxeko Hilean Behin zikloaren barnean eskainiko dutena. 60ko hamarkadan Bartzelonako aldirietan kokatutako istorioa da Alonso Canicer eta Sara Grimal-ek zuzenduriko 75 minutuko hau.

Estatuko hainbat herritatik Bartzelonara hainbestek egin zuten bidea eta helmugako txaboletako bizimodua, "etxebizitza bat eskuratzea hainbeste jenderentzat arazo den garai honetan", ez genukeela ahaztu behar uste dute dokumentalean agertzen diren protagonistek. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

URRIAK 30 22:00etan
THE HOT WOK + DJ PARRUCHO
KONTZERTUA. Sarrera: 6-8 euro.

URRIAK 31 20:00etan
XABIER LETE
POESIA IRAKURTALDIA. Sarrera: 5 euro.

AZAROAK 1 17:30ean
ELVI SABELIZTUNA
UMEENTZAKO ANTZERKIA. Sarrera: 4 euro.

AZAROAK 5 20:00etan
KANTUAREN KANTOIAN. Mikel Urdangarín
BERBALDI MUSIKATUA. Sarrera doan.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

LUR SAGAR
Dantzaz Elkartea (Donostia)

Azaroak 1 • 19:00etan

San Agustin
KULTUR
GUNEA
DURANGOKO UDALA

HITZ
Liburu

Tf.: 94 601 07 76 Artekale, 14 Durango

44. EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA



“Durangoko Azoka aukera paregabea da harremanak estutu eta hain dinamikoak diren bi kulturei bide emateko”



Josep Bargalló Llull Institutuko zuzendaria. Gerediaga Elkartea

Durangoko Euskal Liburu eta DiskoAzokako berrogeita laugarren edizioa ohorezko gonbidatuak zarete. Zelan jaso duzue albistea?

Asko poztu gara, noski. Oho-re handia izango da guretzat Durangoko zita garrantzitsu honetan parte hartzea. Literatura katalanak, beste guztiek bezalaxe, nazioarteko erakus-

leihoak behar ditu ondoan. Mexikoko Guadalajaran izan ginen 2004an, eta baita Frankfurtan ere oraintsuago, 2007an. Eta euskal literatura eta musikagintzan ezinbesteko hitzordua da hau, dudarik gabe. Aukera paregabea da harremanak estutu eta hain dinamikoak diren bi kulturei bide emateko.

Ramon Llullek mundura ireki zuen katalanaren mundua. Bere izanari omen eginez sortu zen Llull Institutua, literatura eta kultura katalana zabaltzeko eta indartu asmoz. Aurtengo Azokan herrialde gonbidatua da Katalunia. Josep Bargalló zuzentzen dau gaur egun Llull Institutua, eta prest dauka maleta.

Gonbidapena aspaldi jaso zenuten.

Orain dela urte eta erdi, oker ez banago. Horri esker, iazko Azoka ezagutzeko aukera izan genuen. Quim Monzó eta Bernardo Atxagarekin batera mahai-inguru batean parte hartu nuen.

Nolako itxura hartuko du Durangok Kataluniako kulturaz jantzita?

Denetariko forma eta koloreak ekarriko ditugu bertara; beraz, anitza izango da. Literatura eta diskogintza gain, zenbait ikuskizun, antzerki eta animazio ere gozagarri izango dira. Kontzertuen artean, gainera, Jabier Muguruzarekin batera Gerard Quintanak eskainiko duen tarteak arrakasta handia izango duenaz ziur gaude.

Beraz, esan daiteke Gerediaga Elkartearekin badaukazuela loturarik...

Azken finean, biok egiten dugu lan gure herrietako hizkuntza eta kulturaren alde. Ekimen askotan parte hartzen dugu bi erakundeok, betiere, gure ondarearen zabalkundea ardatz izanik. Bereizten gaituen ezaugarria izan daiteke, Ramon Llull Institutuak atzerrian ezagutarazteko egiten duela lan.

Zein lan dira horiek?

Asko eta askotarikoak dira. Munduko 160 unibertsitate-ekin hartu-eman iraunkorra dugu, eta, orotara, milatik gora ekitalditan parte hartzen dugu urtero. Bogota, Mosku, Madril, New York, Venezia eta Paris daude une honetan garatzen ari garen proiektuen artean. Azken hori, Parisko Expolangues Azokan datorren urtean gonbidatu gisa parte hartzeko apustua da.

Hainbeste egitasmo aurrera ateratzeko, lana sobera duzue?

Hiru sailetan antolatutako gaudela. Sorkuntza saila, hizkuntza eta unibertsitate saila, eta literatura eta pentsamenduaren saila. Beste ekintza esanguratsuen artean, katalana unibertsitateetan presente eta irakasgai izateko baliabideak eskaintzen ditugu; hizkuntza katalanaren egiaztagiraren ardura hartzen dugu; artista eta kultur sortzaileei nazioarteko eskenatokiak irekitzen

saiazen gara; herri honetako literaturaren dibulgaziorako bideak aztertu eta informazio hori zabaltzen saiazen gara...

Zure iritziz euskal kulturak zer nolako presentzia du Katalunian?

Askok pentsatu dezakeena baino nabarmenagoa, baina, beti ere, egoera normalizatu batean izan beharko lukeena baino eskasagoa.

Zer ekarriko duzue abenduko maletan?

Kultura alorrean dugun azken garaioetako ordezkariak entzutea, bai literaturagintzan eta bai musikagintzan.

Eta zer eramango zenukete etxera bueltan?

Kataluniar eta euskal literaturaren arteko harremanean aurrerapausu esanguratsua. Itzulpen gehiago, irakurle gehiago, edizio gehiago... Eta, finean, bi kulturen arteko ezagutza sakonagoa.

44 segundutan

‘cat’ Ziberrespazioan leiho berri bat. Hizkuntzaren aitorpena	Llull Institutuaren nazioarteko ordezkariak Paris, Berlin, Londres eta New York.
Ramon Llull, hitz batez Unibertsala	Institutuak banatutako azken saria Denise Boyer-i emandakoa. Hizkuntza eta literaturaren katedradun ohia Sorbonan
Llull Institutua osatzen duen lagun kopurua 180tik gorako taldea gara	Institutuak jasotako azken saria Valentziako ‘Urriko Sariak’, hile honetan bertan

44

DURANGOKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

2009ko Abenduaren 4tik 8ra

DURANGOKO AZOKA ZURE ESKURA DAGO

CATALÀ & EUSKARA

X 30.000 LIBURU BAINO GEHIAGO + 4.000 m²

+ (KONTZERTUAK + ERAKUSKETAK + PARTAIDETZA + MUSIKA < JAI GIROA) X 44 URTE











AMERIKAKO ABENTURA

EGILEA: JOSE MARI ETXANIZ

Euskal pilotariek itsasoz bestaldera jo zuten; han oso bestelako gizartea aurkitu zuten. Artikulu honetan nola egokitu ziren eta euren esperientziak nolakoak izan ziren azaltzen digu egileak. Horrez gain, izan zituzten laneko arazoak berri ere ematen digu.



URKIOLAK 20 URTE. PARKE NATURALAREN ARGILUNAK



Zenbait teknikarik eta eragile sozialek Urkiolako parke naturalak sortu zenetik orain arte izan duen bilakaerari buruzko iritzia ematen dute.

Argi ikusten dira alde positiboak eta hobekuntzak, baina ez dituzte ahazten eremu horrek oraindik dituen arriskuak.

DURANGOKO LURRA

EGILEA: GREGORIO MONREAL

Gure eskualdeak Erdi Arotik izan duen antolaera, haren berezitasunak eta gobernu-organoak, Astola eta Gerediagako Batzak eta Durangoko Merinaldearen eta Bizkaiko Jaurerriaren arteko harremana azaltzen dizkigu egileak.



ETORKINAK. AUZOKO BERRIAK

EGILEA: XABIER AIERDI, EAE-KO INMIGRAZIO BEHATOKIKO ZUZENDARIA ETA JOSEBA ATXOTEGI

Azken urteotako migrazioak erronka berriak ekarri dizkio gure gizarteari. Artikulu honetan etorkinen integrazioari



buruzko oharra eta jarraibideak eskaintzen dituzte, eta etorkin askoren sufrimendu animikoari buruz ohartarazten digute.



astola

ikerketa eta historia

DURANGALDEKO
URTEKARIA

3.78 2009
3€



Irakurtzen gozatuz, eskualdeko historia ezagutzeko ikerlanak

Kalean da dagoeneko Gerediaga elkarteak argitaratzen duen historiari eta ikerketari buruzko ASTOLA urtekariaren hirugarren zenbakia. Aurreko bi zenbakiek –agortuta daude– izan zuten aparteko harrerak orrialde kopurua handitzera eramán gaitu, eta oraingoan 24 orrialde gehiago izango ditu. Horrez gainera, tirada ere handitu egin dugu, interesatu guztiengana heldu ahal izateko.

Aurkezpen oso zaindua du –argazkiek eta irudiek protagonismo handia hartu dute–, eta horrekin batera, historialari eta teknikari adituek idatzitako testuen zehaztasunari esker, gai horiekiko interes handiegia ez dutenentzat ere erakargarri bihurtzen da aldizkaria.

Ale honetan, Gregorio Monreal historialariak gure eskualdearen –Durangoko Lurren– sorburua eramango gaitu; lehenengo Nafarroako Erresumaren baitan, eta, geroago, Gaztelakoaren barruan berezko antolakuntza izan duen lurraldea, alegia.

Armando Llamosas izeneko arkeologoak Abadiñoko Astxiki mendiko gazteluarekin harritu gaitu. Nork esango luke leku horretan gaztelu bat zegoela duela mila urte? Gaztelu hori –gaur egun ez dago– Durangaldeko bizipen historikoen lekuko izan zen Erdi Aroaren aldi handi batean. Urkiola parke naturalaren hogeitazazpi urteak aztertu dituzte teknikariek eta politikariek, bestalde, eta argilunak hauteman dituzte; alde positiboak eta hobetu beharreko gaiak ere bai.

Xabier Aierdi EAEko Inmigrazio Behatokitik zuzendariak eta Joseba Atxotegi psikiatrak inmigrazioaren gaia aztertu dute. Zer egoeratan bizi diren, integrazio egokiak zer nolako erronka dakarren, eta haien sufrimendu animikoaz mintzo zaizkigu, besteak beste.

Jon Gamindek dultzainaren mundura hurbilduko gaitu, eta instrumentu hori uste genuena baino gureagoa dela erakutsiko digu.

Iñigo Agirrek Elorrioko 50eko eta 60ko hamarkadetan Funcor kooperatibarekin bizi izan zuen esperientzia berri eta arrakastatsua ekarriko digu gogora: zergatik ez dakigula eragotzi zuten esperientzia.

Pilotariek Amerikan zuten bizi-modua, jaioterriarekin alderatuta hain bestelako munduak ekarri zizkien erronkak jakinaraziko dizkigu Jose Mari Etxanizek.

Jose Mari Uriartek XX. mendearen hasieran Iurreta eta Durangoko esperientzia aeronautikoak gogoraraziko dizkigu.

Oraingoan, portafolioak Luis Madina elorriarraren argazkiak ekarriko dizkigu. Bere herri maiteko harrien artean egindako zuri-beltzeko ibilbide laburra.

Gainera, Barruko Ibilbideak atal berriak protagonisten oroitzapenen kutxa zabalduko du, eta gogoan iltzatuta geratu zaizkien txikitako lekuetara eramango ditu hegan.

Aldizkaria honako liburu-denda hauetan dago salgai: Basabe, Etxebarria, Hitz, Irakurri eta Urrike Durangon; Amalur eta Estanko Berrizen; Bolinaga, Ilargi eta Kamikopiak Elorrian; Maribel eta Xiripot Ermuan; Urien Iurretan; Petite Abadiñon; Imendia Zaldibarren; Ayerdi, Elustondo eta Udaloste Zornotzan; eta Elkar Bilbon.

ASTXIKIKO GAZTELUA

EGILEA: ARMANDO LLAMOSAS

Erdi Aroan Astxikiko gailurrean (Abadiñon) gaztelu bat zegoen, eta haren inguruan hainbat eta hainbat arma berreskuratu ziren. Hori hizpide hartuta,



egileak hainbat planteamendu eta hipotesi proposatzen ditu, ez baitago sakoneko indusketarik.

DULTZAINA DURANGALDEAN

EGILEA: JON GAMINDE

Gaita, edo dultzaina, musika tresnaren berezitasunak azaltzeaz gain, Durangaldeko gaitero-dultzainero nagusienei erreferentzia egiten die Jon Gaminde Bizkaiko gaiteroak.



FUNCOR (1955-1970). ERAGOTZITAKO PROIEKTUA

EGILEA: IÑIGO AGIRRE

Elorrioko Funcor kooperatiba sozialki aurreratua zen eta euskal gizarteari egokitutako industria-ekoizpeneko eredu berrirako esperientzia izan zen. Baina proiektuaren amaiera iragarrita zegoen.



BARRUKO IBILBIDEAK



Eskualdeko pertsona ezagunek euren haurtzaroan arrastoa utzi zuten lekuetara eramango gaituzte.

ELORRIO, HARRIEN MINTZAIRA

EGILEA: LUIS MADINA



Argazki-bilduma da, eta haren bidez, zuri-beltzetik kolorerainoko ibilbide laburra egingo du egileak, bere jaioterriko elementu adierazgarrienetako baten, harriaren, argazkiak eginez.

ERITZIA[>]

Gutunak



Talibana naizen neurrian... Marisa eta Kristinari

80ko hamarkadan esaldi bat zegoen modan: "Umore gabeko iraultza, gorringo gabeko arrautza"... Eta gure Demetriok esango zuen moduan, "uso palabran" egonik, azken asteetan irakurritako zenbait idatziri erantzun bat ematea beharrezko [eta behartu] ikusi dut. Baliteke "talibana" izatea... Ivan errusiarrez Jon da, eta ez da lehen aldiz telefonoa jaso eta entzun dudana "quiero hablar con un tal-Jon". Baina umorea alde batera utzi, eta goazen harira.

Ez da eztabaida berria. Alardeak eta abar direla-eta, hainbat iritzi entzun dira. Pertsonai famatuen iritziak jaso ditugu komunikabideetan; abeslariak, zinegileak, politikariak, kirolariak... baina oraindik kazetari gutxi ikusi dut folkloristei iritzia eskatzen. Ez dira ausartzen? Dirudienez, berdintasunaren arazoa bakarrik folklorea dago. Ez da diskriminazioa kirol arloan banatuta izatea andreak eta gizonak? Eta banaketa hori, Athletic handitik hasi eta Durangaldeko edozein eskolako kirol antolaketa-raino bultzatzen da. Kirolak "Aita Santuaren" bula du? Kontxo...

2007. urtean argitaratutako Astola urtekariko lehen zenbakian, Iñaki Irigoienek artikulu eder bat dago mendetan zehar gure eskualdeko folklorea andreak izan duten garrantziari buruzkoa. Hainbeste idatzi eta berba egiten dutenei irakurtzeko gomendioa egingo nieke, gutxieneko informazio bat izateko. Durangaldeko folklorea andreak izan dute garrantzia, eta, gainera, plazan, eta ez bakarrik gizon, seme edo nebei jantziak prestatzen. Garaitarrek mantendu dute andreak egindako Sokadantza. Iurretan dantza taldearen eta Gerediagaren elkarlanaren ondorioz eskuratu zuten andreen Sokadantza, eta 2009. urtean lanean ari gara gerra aurretik Berrizen, San Pedro Txikin, egiten zen andreen Sokadantza berreskuratzeke. Baita datuak biltzen ere ari gara, XVIII. mendean, abuztuaren

15ean, Durangoko urian andreak Andra Mariko elizpean egiten zuten dantza berpizteko... Eta hauek, adibide gisa.

Hainbat arazo gairatu ondoren, urriaren 31n. Durangon Durangaldeko folklorea agerraldi xume bat izango dugu. Bertan gizon eta andreak parte hartuko dute, gure eskualdeko dantzak plazaratuz. Idatzi bietan aipatu ere ez da egiten apustu hau, nahiz eta berria orain aste bi kalera-tu nire zutabea, eta, gainera, dantza giroan ezaguna izan. Amnesia?

Andreak euren tokia dute folklorea, eta toki hori eskuratu behar dugu/dute. Baina... oinarritzko galdera bat: Zein da helburua? Euren toki eta protagonismoa eskuratzea ala gizonen tokian dantzatzeko eskubidea eskuratzea? 1886. urtean, Durangoko Euskal Jaietan, Estanpa izenarekin eza-gutzen ditugun dantzak berreskuratu ziren. Durangoko Korpuseko jaietan gizonak dantzatzeko zuten dantza bat zen. Berreskuratu zenean, gizonak eta andreak dantzatzeko prestatu zen. Ez zuten pentsatu andreak gizon jantzirik plazaratzea. Andreei euren tokia eta garrantzia eman zitzaizkien dantza berrian. Baliteke beste dantza batzuetan ere hori izatea bidea.

Nik dakidala, kultura ez dago monopoliorik, eta horren erakusgarri da dagoen taldeen oparotasuna. Pertsona edo elkarte bakoitzak ahal du antolatu nahi duena, itxaroten egon gabe beste norbaitek prestatzea norberak nahi duena. Horrela posible da norberak nahi duena gauzatzea. Erraza dela diote...

Azkenik, lerro hauetan azaldutako iritziak Jon Irazabal Agirreraren iritzi pertsonalak direla nahi dut azpimarratu, eta ez nirekin harremana izan ahal duten pertsonena edo taldeena. Nik ere ez nuke inor mindu nahi...

Jon Irazabal Agirre

Sei hankako mahaia



Sergio Murillo
EAJ-PNV

Ardura eta erantzukizuna

Aste honetan, egunero hartu ditu egunkariak azalak erakunderen bateko aurrekontuen barriren batek, dela aldundietan aurreakordio bat lortzeko dagozela, dela Euskadiko proiektuen batentzat finantzatzina lortu delako estatuko aurrekontuetan.

Aitzitik, ikuspegi ekonomikoa ez da gura geunkeen bezain ona. Langabeziak gora egiten darrai, eta ekonomia ez da suspertzen. Dudarik ez dago, honek arduratu egiten gaitu.

Durangok aurrekontu bat behar dau, kontestu ekonomiko barriari erantzuna emateko

Durangori jagokonez, egoera honek udal zerbitzuetan isla izan dau. Izan be, gizarte zerbitzuak lanez gainezka dagoz beharizan barriari erantzuna emon guran. Ez dogu inor patuaren eskuetan itzi nahi, eta horretarako erantzukizuna behar da. Udazken aldera, urtero gure agintarien erantzukizun maila neurtzeko aukera izaten dogu aurrekontuen eztabaida prozesuan, eta, aurtengoan, inoiz baino gehiago, agerian geldituko da nork egiten dauen herriaren alde, herritarren alde, herriko interesen alde, bestelako esaldi eta berba lodiak alde batera itzita.

Durangok aurrekontu bat behar dau, krisi garaietarako aurrekontu bat, kontestu ekonomiko barriari erantzuna emateko aurrekontu bat, durangarren beharizan barriari erantzuteko aurrekontu bat. Batu beitez indar guztiak egoera ekonomiko honetatik albat arinen irten gaiten, inor bide bazterrean itzi barik.

Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Zure eritzia, gutuna edo fotodenuntzia
helarazteko helbideak:

Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO



Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarteak
2009ko urriaren 30a - 8. urtea - 349 zk.

Laguntzaileak:



Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazioa:

Itziar Belar, Miren Abasolo eta Naiara Alzaga.

Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.

Erredakzioa:

Aitziber Basauri, Pello Mugarza, Itsaso Esteban, Markel Onaindia

Testu zuzentzaileak: Igor Elortza.

Maketazioa:

Ainhoa Arizmendiarieta.

Argazkilariak: Iban Gorriti, Ana Domínguez eta Kepa Aginako.

BAUTISTA ALTZARIAK ETA DEKORAZIOA-REN ALTZARIGILE IZARRAK PROMOZIOA

Altzarigile ugariko aukera
prestatu dugu zeure eskura
jartzeko **PREZIO IZARRETAN**
eta zure erosketagatik taloi bat
jasoko duzu opari gainera
gure dendetako edozein
produktugatik trukatzeko
edo bere prezioa
zuzenean merketzeko



SUKALDEAK - BAINUGELAK
EGONGELAK - LOGELAK
HAURRENTZAKO LOGELAK - TAPIZAK
GORTINAK - STOREAK - ALFONBRAK
OHE-JANTZIAK - ARGIZTATZEA

DOAKO FINANTZIAZIOA
12 HILEAN
PROIEKTUAK ETA AURREKONTUAK
KONPROMISORIK GABE


BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN
LEODIO - ABADIÑO

AGENDA>

>ANBOTOk agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Urriak 30 eta azaroak 1

DANTZAN MURGILDUZ

Ingalaterrako, Frantziako eta Holanda-ko dantzaren hiru sentitsibiltateak aurkeztuz, pauso barria emon dau Dantzaz Elkartek 'Lur Sagar' obragaz. Horretaz disfrutatzeko aukera izango dabe Elorrio eta Durangora hurreratuko direnek. Bikote biren gorabeherak islatuko ditue 1. zatian, la oharkabeen 2. aren atariara eroanez: Edeneko errekan patata-uzta bitxi bat irudikatuko dabe, Mercedes Sosaren soinu tribal eta indartsuan murgildurik.

ANTZERKIA

BERRIZ

- » 'Anita ilezikin' (Txintxaun Kolektiboa), urriaren 30ean, 17:30ean, Kultur Etxean.

DURANGO

- » Umeendako antzerkia: 'Elvi sabeliztuna' (Bentri-Magik), azaroaren 1ean, 17:30ean, Plateruena kafe antzokian. Berbaro euskara elkarteak eratuta.



ERMUA

- » Umeendako antzerkia: 'Musika tresnen fabrika' (Sointek), urriaren 31n, 17:00etan, Lobiano kulturgunean.

BERBALDIA

ABADIÑO

- » Sexualitatea eta emakumea: 'Relación de pareja' (2. zatia), azaroaren 4an, 18:00etan, Errota kultur etxean. Hiru egun aurretik eskatuta haurtzaindegi zerbitzua eskainiko dabe (94 681 87 74).

BERRIZ

- » Abentura Hilabetea: 'Bizitza munduan zehar' (Zigor Gonzalez), urriaren 31n, 19:00etan, Kultur Etxean.

IURRETA

- » România. Munduko paisaiak: 'Ortodoxoak eta erlijio aniztasuna Errumanian' (Luzio Uriarte-Teologoa). Azaroaren 3an, 18:30ean, Herri Bibliotekan.

DURANGO

- » 'Pekatua-krimena eta penitentzia-zigorra Erdi Aroan, literatura eta artearen bitartez' Krimenaren Historiaren Zentroaren VII. Mahai-inguruak. Azaroaren 5ean eta 6an, goizez eta arratsalde, Arte eta Historia Musean.

BESTEAK

DURANGO

- » Kontuleku, abenduaren 19a artean, zapaturo, Udal Liburutegian: 11:00etan (0-3 urte) eta 12:30ean (4-6 urte). Bibliotekan emon leiteke izena (94 603 00 41 / liburutegia@durango-udala.net).

- » Ikima tailerren aurkezpena, urriaren 30ean, 18:00etan, Udal Liburutegian. Ekimen horretan, Durango eta lurretako bibliotekek parte hartzen dabe.

ERMUA

- » 'Ermuan kantuan', urriaren 30ean, 12:30ean, Orbe Kardinala plazatik irtenda. Euskal Birusak antolatuta.
- » 'México Rebelde' jaialdia, urriaren 31n, egun osoan, Orbe Kardinala plazan. Komite Internazionalistek antolatuta.

IURRETA

- » România. Munduko paisaiak: Errumaniar gastronomia dastaketa, azaroaren 5ean, 18:30ean, Herri Bibliotekan. Baita errumaniar herri-musika be. Elena Leonte sukaldariaren eta Errumaniako musika talde baten eskutik.

ZALDIBAR

- » Gaztelekua (12-16 urte). Urriaren 30ean eta 31n eta azaroaren 1ean, 16:30etik 20:30era. Zapatublai, urriaren 31n, 16:00etatik 19:00etara, herri ikastetxean.

DANTZA

DURANGO

- » 'Lur Sagar' (Dantzaz elkartea-Donostia), azaroaren 1ean, 19:00etan, San Agustín kulturgunean.

ELORRIO

- » 'Lur Sagar' (Dantzaz elkartea-Donostia), urriaren 30ean, 22:00etan, Arriola antzokian.

DEIAK

ABADIÑO

- » Durangaldeko Gazte Mugimenduaren Topaketak: Ongietorri eta topaketen aurkezpena, urriaren 30ean, 20:00etan. Luntxa eta afaria, 21:00etan, eta 22:00etan kontzertuak: Hudaltzainak + Desperdizio. Gaztetxean.
- » Durangaldeko Gazte Mugimenduaren Topaketak: gosaria, urriaren 31n, 09:00etan. Eztabaidak, 10:00etan, eta, 14:00etan, bazkaria. Ondoren, 18:30ean, eztabaiden jarraipena, 21:00etan, afaria, eta, 22:00etan, gaubela, Gaztetxean.
- » Durangaldeko Gazte Mugimenduaren Topaketak:

- » gosaria, azaroaren 1ean, 09:00etan. Azken eztabaidak eta aurrera begirakoak, 10:00etan, eta, 13:30ean, ondorioak; 14:00etan, bazkaria Gaztetxean.

DURANGO

- » Genero biolentziaren aurkako elkarretaratzea. Eguenero, 20:00etan, Andra Mariko elizpean. Durangoko Plataforma Feministak deituta (Bilgune Feminista eta Andereak elkarteak).

- » Odola emoteko aukera, eguenero, 16:30etik 21:00etara bitartean, Anbulatorio Zaharrean. Mugarra odol-emaila elkarteak deituta.

- » Ludotekan izena emoteko, urriaren 30a bitartean (94 466 91 54 / ludoteka@durango-udala.net).

IURRETA

- » Igerilekuetako, euskarazko, Udako Euskal Unibertsitateko eta musika ikastaroetarako diru-laguntzak eskatzeko, abenduaren 4a bitartean, Ibarretxe kultur etxean. Baita igerilekuetako abonuetarako be (94 620 03 42).

ZORNOTZA

- » 'Hurbil zaitez antzokira!' bisita. Ganso (Gorka Zero) aktoreak gidatuta, azaroaren 4an, 19:30ean. Zornotza Aretoan.

ERAKUSKETA

BERRIZ

- » 'Joskurak'. Fernando de Vicenteren margoak. Azaroaren 1a artean, Kultur Etxean.



ERMUA

- » 'Mikologia eta Natura'. Joaquín Sánchezen argazkiak. Urriaren 31 arte, Lobiano kulturgunean. Baita 'México: dignidad rebelde' be, Komite Internazionalistak eratuta.

ELORRIO

- » 'Basoaren azala'. Argazkiak. Iturri kultur etxean.

IURRETA

- » România. Munduko paisaiak: Errumaniari buruzko erakusketa, azaroaren 6a bitartean, Ibarretxe kultur etxean.

ZORNOTZA

- » Gorka Azaolaren margoak. Urriaren 31 arte, Zelaieta zentroan.

- » 'Esklabotza frankismoan: errepideak eta fortifikazioak mendebaldeko Pirinioan' (Eusko Ikaskuntza), azaroaren 1etik 16ra, Zelaieta zentroan.



IKASTAROKAK

BERRIZ

- » Guraso Eskola: 'Internet bizirik, afaria hotz', azaroaren 5ean eta 12an, 18:00etatik 20:00etara, DBH zentroan. Gizarte Zerbitzuen eskutik eratuta. Izena emoteko urriaren 30a arte, Udaletxean (94 682 40 36 / 94 682 45 84).

- » 'Dependentziari aurre egin', azaroaren 4, 11 eta 18an, 17:00etan, Jubilatuen Etxean.

- » Senide zaintzaileendako tailer psikosoziala, eguenero, 18:00etan, urriaren 29tik abenduaren 17a arte, Kultur Etxean. Izen-emotea Gizarte Zerbitzuetan.

DURANGALDEA

- » Berbalagun, Durango, Elorrio, Zaldibar eta Berrizen (639 400 786 / durangaldea@aek.org)

DURANGO

- » Euskal Dantzak. Martitzenero, 19:30etik 21:00etara, AIKO taldearen eskutik, Plateruenean.
- » 'Aukera berdintasunari eta feminismoari buruz, hitz egiteko prest?' jabeakuntza ikastaroa, astelehenetan, Andragunean, 18:30etik 20:00etara. 'Emakumeak eta euskal literatura', eguenetan, 10:00etatik 12:00etara (andragunea@durango-udala.net / 94 465 70 92).

ELORRIO

- » Emakume eskola: Sexualitatea (Saioa Hernández). Azaroaren 2, 16, 23 eta 30ean, 18:00etatik 20:00etara. Izena emoteko aukera dago urriaren 30a arte.

- » Dantza modernoa, sabel-dantza, areto dantzak eta Karibeko dantzak. Urrian hasita, 10:00etatik 12:00etara, Iturrin (94 603 20 32).

IURRETA

- » 'Bularretik mintzora': azaroaren 4an, 18:00etan, familiarendako (Yolanda Arrieta), Udal Liburutegian (94 681 27 26 / biblioteca@iurreta.net).

- » 'Gure Barik' bertso eskola. Urriaren 30ean hasita, barikuro,

- 18:00etan, 12-18 urtekoentzat. Urriaren 29an hasita, eguenero, 20:30ean, 18 urtetik gorakoentzat. Gazte Asanbladak eratuta.

OTXANDIO

- » Yoga, gimnastika eta pilates, azaroan hasita. Emon leiteke izena (administrazioa.otxandio@bizkaia.org / 945 45 05 03 / 945 45 00 20).

IPUINAK

IURRETA

- » România. Munduko paisaiak: 'Historias de Rumania' helduendako ipuin kontaketa (Amaia Arriaran), urriaren 30ean, 20:00etan, Herri Bibliotekan.

ZALDIBAR

- » Lur Korta ipuin kontalaria, urriaren 30ean, 18:00etan, Liburutegian.

JAIK

MALLABIA

Urriko jaiak

- » Nesken pala partiduak, urriaren 30ean, 17:30ean, Mallabia I frontoian. Txupinazoa, 19:00etan. Jarraian, Alex Txikonen eskutik ikus-entzunezkoa, Orratio euskara elkarteak eratuta.
- » Diario Vasco Torneo, urriaren 30ean, 21:30ean, Mallabia I frontoian: Onsalo-Aldape / Olaetxea-Pazos, eta, Armendariz-Gorrotxategi / Mendiñueta-Aretxabaleta.
- » Erromeria: Bide Batez, urriaren 30ean, 23:00etan, plazan.
- » Eskolarteko futbito: Mallabia-Zaldibar, urriaren 31n, 11:00etan, eskolako frontoian. Emakumezkoen Saskibaloia Eskola, 12:00etan. A.D. Mallabia futbol taldeak antolatuta.
- » Mus, Tute, Briska eta Asto Txapelketa, urriaren 31n, 16:30ean, tabernetan. Sariak: 1.ak 80 euro eta 2.ak 50 euro.
- » Kiki eta Moko pailazoak, urriaren 31n, 17:00etan, frontoian. Deabruak Teilatueta + Lehiotikan + Disorders + Zea Mays, 22:00etan, plazan. Txorizo pintxoak, 05:00etan elkarteak.



» **Tortilla patata txapelketa**, azaroaren 1ean, 14:30ean, plazan. Sariak: 1.ak 100 euro eta 2.a 50. **Balkoitik balkoirako bertso saioa**, 17:00etan: **Arkaitz Estiballes, Xabier Paya eta Etxahun Lekue**.

LEHIAKETA

BERRIZ

» **I. Eskultura Lehiaketa**. Proiektua aurkezteko azaroaren 2tik 27a arte, Kultur Etxean. Saria: 18.000 euro (94 682 40 36 / 94 682 45 84).

DURANGALDEA

» **XV. San Andres Bertso Paper Lehiaketa**. Lanak aurkezteko azaroaren 6a arte: Urkizu 11, solairuarte. 20600-Eibar. ... eta kitto! euskara elkarteak eratuta (*elkartea@etakitto.com*).

DURANGO

» **‘Azaroak 25, emakumeenganako indarkeriaren aurkako kontaketa laburrak eta olerkia’ lehiaketa**. Urriaren 30a arte helerazo leitekez Andragunera. Uriko eskoletako haur eta gazteak eta kanpoko eskoletako durangarrek parte hartu leikie (13-18 urte); 18 urtetik gorako sailean edonork. 100 eta 200 euro arteko liburu sortak emongo ditue; 18 urtetik gorakoen sailean 600 euro (kontaketa laburretan) eta 300 euroko (olerkietan) sariak.

ELORRIO

» **‘24 ordu digitalean’ Arriolako IV. Film Laburren Lehiaketa**. Urriaren 30ean, 18:00etan, lehiaketaren oinarriak aurkeztuko ditue Arriola Antzokian; 31n, 22:00etan, **aurkeztutako film laburren emanaldia eta sari banaketa**.

LITERATURA

IURRETA

» **Munduko emakumeen literatur tailerra**. Astelehenero, 18:15ean, Udal Liburutegian.

MUSIKA

DURANGO

» **The Hot Wok + Dj Parrucho (Ortophonk)**, urriaren 30ean, 22:00etan, Plateruenean.



» **‘Kantuaren kantoia’ berbaldi musikatuak: Mikel Urdangarin**. Azaroaren 5ean, 20:00etan, Plateruenean.



ELORRIO

» **Yoko Out (Durango)**, urriaren 31n, 23:30ean, Arriolako Ateneoan. ‘24 ordu digitalean’ Arriolako IV. Film Laburren Lehiaketaren haritik antolatutako kontzertua.

ERMUA

» **Art Trio Bohemia (Txekia)**, urriaren 30ean, 22:15ean, Lobiano kulturgunean.

ZORNOTZA

» **‘Udagoieneko Ostera’: Lor + Eraso**, urriaren 30ean, 22:00etan, Zelaieta zentroan. Topaguneak antolatuta.



POESIA

DURANGO

» **Poesia irakurtaldia: Xabier Lete**, urriaren 31n, 20:00etan, Plateruenean. *Egunsentiaren esku izoztuak* liburuaren irakurtaldia.



Urriaren 31n, 22:00etan

ZEa MAYS BILBOTARREN DOINUAK, MALLABIKO URRIKO JAİETAN

Zea Mays bilbotarrek Mallabiko Urriko Jaiak izango ditue oraingoan oholtza. 1997an sortutako taldeak, 2007an kaleratu eban *Morphina* azken diskoa, eta bertan jasotako 12 abestiak zein aurretik sortutakoak eskainiko ditue Mallabiko plazan batuko diren jarraitzaile guztien gozamenerako. Eurekin batera, kontzertua emongo dabe Tolosako Deabruak Teilatuetan, Iruñeko Lehiotikan eta Zaldibarko Disordes taldeek be. Zapatuan jarri dabe musikazaleentzako hitzordua mallabitarrek.

ZINEKLUBA

BERRIZ

» **Helduendako zinea**, azaroaren 1ean, 19:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO

» **‘Despedidas’**, azaroaren 5ean, 20:30ean, Zugaza Zineman.

ELORRIO

» **Hilean behin.dok: ‘Barraques. La ciudad olvidada’**, azaroaren 5ean, 19:30ean, Iturri kultur etxean.

ERMUA

» **Kolonbiako zinea: ‘Paraíso Travel’**, azaroaren 5ean, 19:00etan eta 21:30ean, Lobiano kulturgunean.

ZORNOTZA

» **‘Vacaciones de Ferragosto’**, azaroaren 3an, 20:00etan, Zornotza Aretoan.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza
Destino final (3D)
Zuzendaria: David R. Ellis
barikua 30: 19:00 / 22:00
zapata 31: 19:30 / 22:30
domeka 1: 19:30 / 22:30
astelehena 2: 19:00 / 22:00
martitzena 3: 20:00



Toy Story (3D)
zapata 31: 17:00
domeka 1: 17:00

ELORRIO

Arriola antzokia

Séraphine
Zuzendaria: Martin Provost
domeka 1: 20:00
astelehena 2: 20:00




Umeendako zinema

Cher Ami
domeka 1: 17:00

ZORNOTZA

Zornotza aretoa

Malditos Bastardos
Zuzendaria: Quentin Tarantino
zapata 31: 22:30
domeka 1: 20:00
astelehena 2: 20:00



Umeendako zinema

Ponyo en el acantilado
domeka 1: 17:30

BOTIKAK

Barikua, 30
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
Zapata, 31
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurren 22 - Durango)
09:00-13:30 (*14:00)
• Campillo / Sagastizabal / San Roma / Etxebarria / Unamunzaga / Balenziaga (Durango)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)*
• Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)*
Domeka, 1
09:00-09:00
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)
09:00-22:00
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
Astelehena, 2
09:00-09:00
• Campillo (Montebideo 24- Durango)
Martitzena, 3
09:00-09:00
• Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)
09:00-22:00
• Larrañaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)
Eguaztena, 4
09:00-09:00
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
Eguena, 5
09:00-09:00
• Gaztelumendi (F.J. Abasolo 2 -Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak.....112
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112

GARRAIOAK

Euskotren.....902 54 32 10
Durango94 681 02 32
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto945 286 466

TAXIAK

Abadiño946 814 470
Matiena606 459 988
Durango Geltokia.....946 811 001
Goco Tour946 202 860
Tele Taxi944 102 121
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026
Elorrio Geltokia946 820 040
J.L. Uriarte670 402 002
I. Estebez670 678 273
M Galeano.....946 582 854
Iurreta946 201 565
Taxi auzunea688 618 690

UDALAK

Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango94 603 00 00
Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
Iurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16

UDALTZAINGOAK

Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
Iurreta94 620 08 88

BESTELAKOAK

Arriola94 658 31 92
San Agustin94 603 00 21
Zornotza Aretoa94 630 01 68
Gazte informazioa 94 603 00 30

Txanporta KE94 620 36 47
Errota KE94 466 94 16
Gorabide94 681 24 35
Alkoholiko Anonim.94 415 07 51
Nekazal bulegoa94 681 15 20
Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
Butanoa (UME).....94 681 08 77
Araztegia94 620 28 00
Foru Ogasuna.....94 681 07 42
INEM Durango94 681 12 96
Gizarte Segurantz 94 681 49 58
Epaitegiak.....94 603 00 51

KIROLDEGIAK

Igerilekua
Astola94 620 29 29
Igerilekua
Atxondo94 623 14 38
Berriz94 682 43 74
Durango
(Landako).....94 621 51 30
Durango
(Tabira)94 621 51 50
Elorrio94 682 10 27
Zaldibar94 682 73 74

EGURALDIA

26° BARIKUA
Giro egonkorra izango dogu. Ez dogu aldaketarik itxaron behar: temperatura atsegina, zerua urdin eta haizerik ez. Egunaren amaieran erdi mailako hodei eta goi-hodeiren bat azaldu leiteke.

26° ZAPATUA
Hodeiak ugaritu egingo dira. Halan be, laino zurixkak izango dira, euririk itziko ez daben arren. Egunez, temperatura apur bat jaitsiko da. Hilabetearen amaieragaz batera, eguraldi lasaia be amaituko da.

19° DOMEKA
17° ASTELEHENA
19° MARTITZENA

ELAIA Information Technology >

Software librea? Doako softwarea?

Etxean, ikastetxean, lanean etab. ordenagailua pizten dugun momentutik makina bat programa jartzen dira martxan: sistema eragilea, antibirusa, ofimatikako programa, internet nabigatzailea etab.


Software programa horiek jabea daukate kasurik gehienetan; hau da, erabili ahal izateko baimena behar izaten da. Batzuk ordaindu beharra dago, baina ez denak.

Doakoa bada software librea da? Ez dauka zertan horrela izan. Orduan zer da software askea? Erabili, kopiatu, aztertu, moldatu eta banatu daitezkeen softwarea da, eta, gainera, doakoa kasu gehienetan.

Debaldekora bada eta goian aipatu ditugun baldintzak betetzen baldin baditu, zergatik ez dugu erabiltzen?

Arrazoiak asko dira: ohitu egin gara Microsoft-en lan egiteko erara; arazoak baldin baditugu nora jo dezakegun ez jakitea; merkatuan oso zabaldua ez egotea; beste batekin banatzerako orduan arazoak izatea; driverrak aurkitzeko zailtasuna etab. Zorionez, gero eta gutxiago dira horrelako arazoak,

baina, lehenik eta behin, beharrezkoa da guk geuk aldatzeko borondatea izatea. Behin argi izanez gero, lortuko dugu.



Hona hemen gehien erabiltzen ditugun programen adibideak software askean (eta doan):

Sistema eragilea: Linux bere bertsio ugarietan
Ofimatica: OpenOffice
Internet nabigatzailea: Mozilla Firefox
Bideoak ikusteko: VLC

Animatu eta egin proba software librearekin, ez zaizu kostatuko.

anbototik@elaia.es

Gomendioa

Egin bilaketak Google eta Bing-ekin

Hain nagusi den Google-i, aurkari bat atera zaio azken aldian, beste enpresa handi batek sortu duen bilatzailea: Bing.

Bi bilatzaileak batera erabili daitezke bilaketa bat egin ahal izateko. Emailtzak interesgarriak dira.
<http://bing-vs-google.com/>

Disko gogorraren mantenimendua

Nahiz eta gaur egungo disko gogorak "handiak" izan, bertan dagoen informazioaren kontrola derrigorrezkoa da. Behar ez dena ezabatu, behar dena antolatu, etab.

Gaur, hutsik dauden karpetak bilatu eta ezabatzeko doako programa bat aurkeztuko dugu: Remove Empty Directories.

Programak gure diskoak aztertu-ko ditu eta zein karpeta ezabatuko dituen esango digu.
<http://www.jonasjohn.de/lab/red.htm>

Doako antibirusa.

Internet edo email bidezko komunikazioa hain ohikoa dugunok, beste buruko min bat badugu: ordenagailua birus, troiar eta abarretatik babestua izatea.

Asko dauden arren, doako antibirus programa jakin bati buruzko informazioa emango dugu gaur: AVG Anti-virus 9.

Esan bezala, doakoa da eta Windows XP eta Vistan instalatu dezakegu.
<http://free.avg.es>

KONTSULTA

Nola aldatu dezaket Windows kargatzerakoan agertzen den argazkia?

Kontsulta: Elvira Uribesalgok egin dau emailaz

Normalean ez da gomendagarria izaten tamaina handiko argazkiak sartzea, ordenagailua pizterakoan motelago abiatuko baita. Aldatzeko ondorengoa egin behar da:

Hasiera - Konfigurazioa - Kontrol-panela - Sistema ikonoan klik bikoitza egin. Behin hor izanda, Aukera aurreratuak sakatu. Hasiera eta berreskurapena atalean Konfigurazioa sakatu eta agertzen zaigun leiho berrian Editatu botoia.

Sistema eragilea kargatzeko agindua ematen duen lerroaren amaieran /bootlogo /noguiboot gehitu. Fitxategian aldaketak gorde eta egina dago.

Informazioa gehiago: elaiait.blogspot.com



Information Technology S.L.

Zure sistema informatikoa ez da umeen jolasa.
Kontratatu zerbitzu profesionala:
KONTRATATU elaiia

www.elaiia.es • e-mail: info@elaiia.es • Tel.: 94 640 98 98



KONTSULTAK BIALTZEKO:
anbototik@elaia.es e-mailera idatzi.
Gehienez 200 karaktereko kontsulta.

KONTSULTAK BIDALTZEN DITUZUENEN ARTEAN ANTIBIRUS BAT ZOZKETATUKO DUGU.

HILE HONETAKO IRABAZLEA:
Elvira Uribesalgo

KIROLAK >



Ikusi eta ikasi

Cespa Euskadi taldeak hasi berri du pistako denboraldia. Aurten, besteak beste, Munduko Kopako lau lasterketatan parte hartuko du; proba horietako lehenengoa bihar korrituko dute Ingalaterran, Manchesterren. Taldea osatzen dutenen artean Durangaldeko txirrindulari bi daude: Iban Leanizbarrutia (Elorrio, 1988) eta Martzel Elorriaga (Berriz, 1988). Biek ala biek palmares dotorea dute, baina oraindik trebakuntza lan gogorra geratzen zaie aurretik. Ikustea eta ikastea dute helburu bakar; txirrindulari legez haztea. Asmo horrekin joan dira Manchesterre-ra. Rio de Janeiroko Joko Olimpikoetara begirako bide luzeko hasieran daude oraindik.

Bihar neurria eman behar dutenak beste batzuk dira; Unai Elorriaga eta Leire Olaberria, batez ere. Oraingoz, erantzukizunari ondo erantzun diote. Joan zen asteburuan pistako Europako Txapelketa izan zen Belgikan (Gante herrian), eta Elorriagak brontzezko domina eskuratu zuen. Zilarra puntu bakarrera geratu zitzaion. Ana Usabiagak ere puntukako modalitatea irabazi zuen nazioarteko beste proba prestigiotsu batean (Gran Prix de l'Humanité).

Promesa bi

Gure promesa bien orain arteko ibilbideak etorkizun oparoaren isla dira. Leanizbarrutia Espainiako txapelkun geratu zen iaz,

23 urtez azpiko scratchean. Aurten zilarra lortu du puntuazioan zein scratchean. Hastear dagoen Munduko Kopan bigarren biderrez ariko da.

Elorriagak urrezko domina bi eta zilarrezko beste bat irabazi zituen 2005eko Espainiako Txapelketan. Iaz 24 urtez azpiko puntuazioan Espainiako txapelkun geratu zen. ■ J.D.

Leanizbarrutia eta Elorriagak trebatzea eta nagusiekin ikastea dute helburu

24 Berasaluze ligaxkarako lehian

Lau t'erdiko txapelketako partidua jokatu du Pablo Berasaluzek, astelehenean. Gonzalezen kontra, azkain-darra bere jokamoldera erakartzea izango du helburu

25 Tabirakok ezin du bururik altxatu

Iazko lepotik burua. Gizonek ezin diote neurrik hartu ligari. Lau partidutik hiru galdu dituzte. Azkar erreakzionatu ezean, igoera fasea gehiegi urundu daiteke

Ohiko jokoa du estrategia onena Berasaluze VIII.ak

Lau t'erdiko ligaxkan sartzeko Gonzalez menderatu behar du



Iurretan hainbat entrenemendu egin ditu, eta atzo pilota aukeraketa izan zuen Tolosan. Iban Gorriti

Jakina da Sebastian Gonzalezek defentsan duela ahulgune nagusia, batez ere, mugimendua eskatzen duen defentsan. Jakina da, era berean, Pablo Berasaluzek kolpez ezin duela partidurik hautsi. Beraz, buruz burukoetan, nahi eta nahi ez, berriztarra jokoa nahasten saiatzen da, airez zein dejaden bitartez. Horiek horrela, lau t'erdiko lau onenen ligaxkan nor sartuko den erabakitzeke, astelehenean Tolosan jokatu duen partiduan Berasaluzek ez du aparteko estrategiarik behar; bere ohiko jokamoldea da azkaindarrari min emateko modurik onena.

Udara gogorra izan du Berasaluzek, eta kezkatuta egon da nekeak ez ote zion gehiegi eragingo. Baina azken aldian egin dituen entrenamenduetan oso ondo aurkitu da: "Uda gogorraren ondoren, 10

eguneko atsedena hartu nuen. Ez zela nahiko izango uste nuen, okerrago egongo nintzela, baina entrenamenduetan oso ondo aurkitu naiz", aipatu du.

Lesio baten ondorioz Abel Barriola lau t'erdikotik kanpora geratu zenean, enpresek berriztarra jarri zuten multzoburu. Presiorik sentitzen duen galdetuta, "apur bat" baduela onartu du, baina ez omen dio ilusioari gainera hartzen: "Ligaxkan lau onenen artean sartzeak, gutxienez, beste hiru partidu jokatzeara dakar. Gainera, datorren urtean berriro multzoburu izateko esku-bidea irabaziko nuke. Horrek ilusio itzela sortzen du".

Berasaluzek Josetxo Areitio izango du botillero. Ez da iurretarra aholku-emaile izango duen lehenengo aldia. "Gustura aurkitzen naiz beragaz, elkar ondo ulertzen dugu". ■ J.D.

Zabala final laurdenen bila, gaur, Iurretan

Argote du aurkari berriztarrak bigarren mailako lau t'erdiko final zortzirenetan

Buruz burukoan Jokin Argotek Ibai Zabala berriztarra kanporatu zuen. Getariarrak alde handiaren irabazi zion: "Argote buena asko egiten duen pilotaria da. Buruz burukoan apur bat deseperatu egin ninduen, eta ez nuen ninerik eman", gogoratzen du Berriztarrak. Orduko hartatik ikasgai garbia atera du gaur Iurretako Olaburu pilotalekuan (19:45etik aurrera) jokatu

Buruz burukoan ere elkarren kontra jokatu zuten. Orduko hartan Argotek irabazi zion

"Entrenatzen oso ondo topatu dut neure burua; uda amaierako nekerik ez dut somatu"

Irabazita, lau onenen ligaxkan sartu eta multzoburu litzateke datorren urtean

duen lau t'erdiko neurketarako: "Pazientziak jokatu behar dut, bururik galdu gabe".

Biak atzelariak izatera, lau t'erdiko joko klasikoa aurreikusiten du: "Ez dut estrategia konkreturik. Esango nuke biak lau t'erdiko marra bilatzen saiatuko garela; pilotari ematen eta ahal den neurrian baztertzen. Gero, aurrean aukera dugunetan, bakoitzaren abildadeak erabakiko ditu tantoak". Irabaziz gero, Zabalak Cabrerizoren kontra jokatu du final laurdenetan.

Zabalak gaurkoa du txapelketako bigarren partidua. Lehenengoan Urrizelkiren kontra jokatu eta 22-13 irabazi zuen. Partidu erditik aurrera berriztarra erraz nagusitu zitzaion. ■ J.D.

Agustin Alkorta
• Futbol entrenatzailea



Europa, Europa

Adituarentxokoa

Denboraldi honek ikusmin handia sortu dau Athleticen zaleen artean. European jokatzeko aukera ez da egunero izaten. Gainera, lau urte luze joan dira azkenengo biderrez European parte hartu ebanetik: 2004/05-eko UEFA-n, Valverdegaz, Austria Viena-ren aurka jausi zen (final-hamaseirenetan), lehen fase galanta burutu eta gero (gogoratu Liejako 1-7 ha). Aukera ederra galdu zen orduan. Uda horretan, Intertoton be parte hartu eban, eta Errumaniako Cluj-en aurka galdu eban lehenengo kanporaketan. Mendilibarren etorkizuna markatu eban ezusteko harek.

Esperientziak dino European lehiatzea gatxa dela: talde guztiak, izen apalagoa dakarrenak be, ederto prestatuta dagoz, eta, horrez gainera, norberaren prestakuntza be desberdina izan behar da: denboraldi barruan ez dago atsedenik, ostegunean eta igandean jokatuz, ia astero. Caparrosen eskua klabea da plantillaren maneian.

Baina fedea daukat Athleticengan, ze kontinente mailan beti emoten dau neurria. Hasierako kanporaketak gaingitu eta gero, fase hau ondo daroa; San Mamesen, behintzat. Saillkapena ia lortuta, ondorengo norgehiagoka errezagoa izateko, ahal den goren gelditu behar da. Eta hortik aurrera, kanporaketak. Katedrallean giro itzela biziko da. Afizinoak ez dau hutsik egingo, seguru.

Halan be, gauza garrantzitsu bat ez da ahaztu behar: Liga ezin da alde batera itzi. Hori oso arriskutsua izan daiteke... baina European zehar ibili gura dauenak...

Martínez eta Elorriaga irabazle Urkiolan

Pablo Martínez laredoarra gizonetan (41,32) eta Agurtzane Elorriaga iurretarra emakumeetan (53,25) izan ziren azkarrenak Durangaldeko XIX. Maratoi Erdian. Eguraldia lagun, parte-hartzaileek 22 kilometroko ibilbidea osatu zuten. Martínezek 35 segundoko aldea atera zion Jontxu Alonso bigarrenari. Elorriagak, berriz, ia bost minutura utzi zuen Arantzazu Larrañaga bigarren sailkatua. ■ J.D.

Frontisek Eneko Perosanz fitxatu du, urte birako

Frontis enpresak Eneko Perosanz pilotari berriztarra fitxatu du asteon. Urte bikoa da Perosanz lehenengo kontratu profesionala. Berriztarrak 19 urte ditu eta ikasketekin partekatuko du pilota profesionala. 1,83 garai da eta 79 kilo ditu. Gaztea izanagatik badu palmaresa: 2005ean eta 2007an Bizkaiko Herriarteko txapelkun geratu zen eta 2005ean, 2006an eta 2008an Bizkaiko txapela irabazi zuen. ■ J.D.

Arkuz jaurtitzeko modua Zaldibarren

Zaldibar Arku Taldeak arku jaurtiketaren inguruko abiatze ikastaroa antolatu du 17 urte-tik gorakoentzat. Azaroaren 2an hasiko dute, eta 22 orduko iraupena izango du.

Ikastaroa arku taldeak sasoi bateko futbol zelaian duen lokalean emango dute. Orduetia izena ematen duten guztiekin batzartu ondoren erabakiko dute. Ikasle kopurua mugatua izango da. Izena ematea 40 euro da, eta epea domekan amaituko da: Tel: 94 682 71 15. ■ J.D.

Final laurdenak erabakiko dira Olazarren

Zaldibarko XXII. Olazar Pilota Txapelketa aurrera doa apurka-apurka, eta egunean final zortzirenetako azken partiduak jokatu dituzte, 21:30ean hasita. Lau t'erdin barruan Mendinueta arabarrak Quina gipuzkoarren kontra jokatu du.

Segidan binakako norgehiagoka jokatu da. Rico errioxarra eta Keralt nafarra Beitia usansoloarraren eta Lopez ortuellarraren aurka ariko dira. Partidu horietatik irten-go dira final laurdenetako azken protagonistak. ■ J.D.

Tomas de Castro: “Konbentzituta nago emaitzak helduko direna”

Jokalariek sistema barneratzean eta lesionatuak errekuperatzean gora egingo dutela dio

Tabirakok aurten ere kaskar hasi du liga. Lau neurketatik hiru galduta, azkenaurreko dago sailkapenean. Hainbat arrazoiri egotzi dakioke taldearen errendimendu eskasa: lesionatuak –asteburuko neurketarako zazpi jokalaria bakarrik dituzte–, unean uneko kontzentrazio falta –Seky.es-en kontrako porrotean 33 jaurtiketa libretik 21 huts egin zituzten–, sistema berrira egokitzeko premia... Faktore guztiek eragiten dute, seguru, baina bidea laster zuzendu ezean, igoera fasea aldapa gora jarri dakioke taldeari.

Dena dela, Tomas de Castro entrenatzailea itxaropentsu dago. Bera da autokritika egiten lehenengoa, baina laster gora egingo dutela sinetsita dago: “Taldeak lan oso ona egiten dihardu entrenamenduetan. Kontuan hartu behar da sistema berrira egokitzen ari direla. Ez dut beldurrik. Are gehiago, konbentzituta nago lehenago edo geroago entrenamenduetako lana kantxan islatuko dena”, adierazi du.

Badira faktore batzuk, ordea, kontrolatu ezin daitezkeenak; lesioak, esaterako. Denboraldi hasieratik taldea osatzeko arazoak izan dituzte. Asteburuko partidua jokatzeko zazpi jokalaria bakarrik ditu durangarren entrenatzaileak. Iñigo Igarza pibotari eguaztenean ebakuntza egin zioten meniskoan, eta hila-betez, gutxienez, ezingo du jokat-

tu; Mikel Agirre baseak ekainean peronea hautsi zuen Euskadiko selekzioagaz; Oinatz Mugika eskoltak oinbularrean arazoak ditu eta aste bian ezingo du jokatu; Jon Agirre oraintxe itzuli da taldera, eta sasoi hartzen dabil; Ruben Arteaga ere, azkenik, Seky.es-en kontrako partiduan lesionatu zen.

Tabirakok lau partidutik hiru galdu ditu eta azkenaurreko dago sailkapenean

Asteburuan Baskonia Fundazioaren kontra jokatzeko zazpi jokalaria bakarrik dituzte

Asteburuan Baskonia Fundazioaren kontra jokatu dute, etxetik kanpora. Gasteiztarrak lider daude, nahiz eta joan zen astean galdu egin zuten. Caja Laboral Baskoniaren filialak talde indartsua du, betiko legez. Esaterako, hiru atzeritar gazte dituzte, eta litekeena da urte gutxi barru ACBan jokatzea, talde nagusiagaz. ■ J.D.



Tabirakok 33 jaurtiketa libretik 21 huts egin zituen. A. Dominguez

Elorrio-Zaldúa, bigarren derbia segidan, bihar

Egutegia kapritxosoa izan da Elorriogaz, eta, Lehen Erregionalera bueltatu den urtean, segidan jokatu dute lurretakoren eta Zalduaren kontrako derbiak. Joan zen asteburuan Larrakozelai bisitatu zuten Angel Dfezen gizonak. Derbi borrokatua lurretakok irabazi zuen (1-0). Aurtengo ezaugarri nagusiak berriro praktikan jarri zituzten iurretarek. Defentsan bikaintza ibili ziren beste behin, eta sartutako golak hiru puntuak eman zizkien.

Elorriok Zaldúa jasoko du bihar Eleizalden. Talde biak elkarren segidan daude sailkapenean, seigarren eta zazpigarren; Elorrio puntu bat aurretik dago. Orain arte, Elorriok etxeko hiru partidua irabazi ditu. ■ J.D.

lurretakoren kontrako derbia galduta, bihar Zalduaren aurka jokatu du Elorriok

Lau durangarren dokumentala Tamurren

Nepalera abiatzeko azkenengo prestaketetan dihardute Txus Ruiz de Erentxun gida durangarrak eta Bideografik ekoiztetxeak. Espedizio horretan *Tamur, Kangchenjungako harribitxia* dokumentala grabatuko dute.


Ikus-entzunezkoaren ardatza Kangchenjungan sorburua

Grabatuko daben Ikus-entzunezkoaren ardatza Kangchenjungan sortutako Tamur ibaia da

duen Tamur ibaiaren jaitsiera den arren, dokumentaleko protagonista bidaian parte hartuko duen gida nepaldarra izango da. “Abenturaz betetako espedizioaz gainera, Nepaleko bizimodua bertako gida baten bidez ezagutzea da helburua”, azaldu digute Bideografik ekoiztetxeak. Txus Ruiz de Erentxunek, aurretik, *Al filo de lo imposible* lako telebista programetan parte hartu du. Bideografikek *Psicoblock* dokumentala grabatu zuen. ■ J.G.

SAILKAPENAK >

Futbola /3. maila / 4.taldea / gizonak		Saskibaloia / 1.maila / Euskadi/ gizonak		Saskibaloia / 1.maila / Euskadi/ emakumeak	
1- Real Sociedad B.....24	15- Kulturala11	1- Baskonia Fund3 (+44)	1- Ardoi5 (+138)	2- Deusto Loiola . . .4 (+65)	2- Deusto Loiola . . .4 (+65)
2- Amorebieta.....22	16- Portugalete11	2- Bidegintza.....3 (+20)	2- Cafés Aitona . . .4 (+60)	3- Bera Bera4 (+30)	3- Bera Bera4 (+30)
3- Zalla.....22	17- Lagun Onak.....10	3- Seky.es3 (+16)	4- Legarzia.....2 (+6)	5- Obenasa4 (+22)	5- Obenasa4 (+22)
4- Beasain.....21	18- Retuerto8	5- Zornotza.....2 (+5)	6- Easo2 (0)	6- Las Gaunas . . .4 (+18)	6- Las Gaunas . . .4 (+18)
5- Amurrio.....18	19- Eibar7	6- Easo2 (0)	7- San Ignacio.....2 (-9)	7- Gernika3 (+50)	7- Gernika3 (+50)
6- Gernika.....18	20- Salvatierra.....6	8- Padura.....1 (-12)	8- Tabirako3 (+48)	9- Elexalde3 (0)	9- Elexalde3 (0)
7- Aretxabaleta.....18		9- Tabirako.....1 (-23)	10- Getxo2 (-73)	11- Abaroa1 (-40)	11- Abaroa1 (-40)
8- Zamudio.....17		10- Bide Bide.....1 (-47)	12- Artieda1 (-49)	13- Arabako EHU . .1 (-58)	13- Arabako EHU . .1 (-58)
9- Baskonia.....17			14- San Ignacio . . .1 (-87)	15- Atletico SN0 (-58)	15- Atletico SN0 (-58)
10- Arenas15			16- Irlandesas0 (-66)		
11- Elgoibar.....14					
12- Laudio.....13					
13- Leioa.....12					
14- Santurtzi12					



Durangoko Kulturalak 13 gol sartu eta 15 jaso ditu hamaika jardunalditan

Agenda

FUTBOLA OHOREZKO MAILA Berriz - San Pedro Domekan, 11:30etan, Berrizburun LEHEN ERREGIONALA (gizonak) Elorrio - Zaldúa Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden BIGARREN ERREGIONALA Abadiño - Padura B Zapatuan, 15:45etan, Astolán HIRUGARREN ERREGIONALA Ezkurdi - Berriz B Zapatuan, 18:00etan, Arripausetan Extremefio - Busturia Zapatuan, 18:00etan, Tabiran LEHEN ERREGIONALA (emakumeak) Iurretako - Arratia Zapatuan, 17:00etan, Larrakozeláin	ARETO FUTBOLA NAZIONAL B MAILA Elorrioko Buskantza - Lakunza Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko kiroldegian EUSKAL LIGA Sasikoa - Azpeltiko Zapatuan, 19:00etan, Landako kiroldegian GOREN MAILA Mallabia Bastida - Altamira Bar Txutxi Domekan, 17:30etan, Zaldibarko kiroldegian LEHEN ERREGIONALA Abadiñoko Gaztetxle - Sumi Muguru Zapatuan, 15:10etan, Elorrioko kiroldegian Presion Break - Pozgarri Zapatuan, 17:00etan, Berrizburun Mendibeltz - Gernika B Domekan, 12:00etan, Landako kiroldegian Dantxari - Kurutzlaga B Zapatuan, 17:30etan, lurretako Lanbide Heziketa Institutoan Gu Lagunak - Lagun Onak B Zapatuan, 17:30etan, Landako kiroldegian	SASKIBALOIA LEHEN ERREGIONALA Julza-Zaldúa - Mungia Zapatuan, 18:30etan, Zaldibarko kiroldegian	ERRUGBIA EUSKAL LIGA Durango Ilarduya B - Gernika Zapatuan, 16:00etan, Arripausetan	PILOTA CAFES BAQUE TORNEOA Kadeteak: - Aranguren (Bermeo) - Esteban (Errioxa) - Elejalde (Araba) - Arratibel (Gipuzkoa) Gazteak: - Arrieta (Markina) - Ansotegi (Markina) - Galarza (Galdakao) - Jauregi (Gipuzkoa) Eguaztenean, 19:00etan, Mañariko pilotalekuan LAU T'ERDIKO TXAPELKETA - Argote - Ibai Zabala - Agirre - Belloso(lagu-nartekoa) Barikuan, 19:45etan, lurretako Olaburu pilotalekuan
---	---	--	--	--

AMALURRA[>]

Publierreportajea



Ordu biko mendi buelta egingo dabe, eta horren ondoren Toki-Alai zentroa bisitatzeko aukera edukiko dabe

Abenduan zabalduko ditu ateak Urkiolako VII. Argazki Rallyko erakusketak, eta urtarrilaren 17ra arte iraungo dau

Ibilbide gidatua Urkiolan, Saibi mendiaren inguruan

Azaroaren 15erako antolatu dabe irteera hori; bestalde, joan zen zapatuan hainbat lagun batu zen Urkiolako VII. Argazki Rallyan

Urkiolako Parke Naturalak aberastasun natural eta kultural ugari batzen dau bere baitan. Hori aprobetxatuta, hainbat ekimen antolatzen da bertan, eta azaroaren 15ean horren adibidea aurkitu geinke. Izan be, Urkiolako Lagunak taldeari zuzenduta, Saibi mendiaren inguruan ibilbide gidatua antolatu dabe.

Parkea eta bere ingurunea atsegin dabenek osatzen dabe Urkiolako Lagunak taldea. Urtean zehar informazioa jasotzen dabe izena emotearen truke, eta, gainera, ekintzetan parte hartzeko gonbita izan ohi dabe. Kasu honetan, batez be, kideentzako eta euren familientzako irteera prestatu dabe antolatzaileek. Ibilbide erraza izango da, guztiek egiteko modukoa.

Goizeko 10:30ean emongo jako hasiera ekintzari, Bizkarra

jatetxearen aparkalekua abiapuntu moduan hartuta. Ordu biko mendi buelta osatuko dabe parte-hartzaileek, eta horren ondoren, Toki-Alai interpretazio zentroa bisitatzeko aukera edukiko dabe. Zentro hau Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatzen dau, eta Urkiolan ikusi leitekena erakusteko helburua dauka. Museografia garaikideagaz bat dator, baliabide barrienekin.


Aipatu bezala, familientzako pentsatuta dago itzuli hau, eta parke naturalean diseinatu dabilzen ibilbide barrietako bat da. Antolatzaileek argitu dabenez, komenigarria da jateko eta edateko zeozer eroatea; ekimena erraza izan arren, sekula be ez dator txarto indarrak hartzeko aukera izatea. Izena emateko telefono zenbaki honetara deitu behar da: 94 681 41 55.

Argazki Rallya

Joan zen asteburuan Urkiolako VII. Argazki Rallya ospatu zen, eta abenduan erakutsiko ditue ateratako argazki onenak Toki-Alain. Abenduan zabalduko ditu ateak erakusketa horrek, beraz, eta urtarrilaren 17ra arte izango da bisitatzeko aukera.

Argazkigintza eta ingurumena gustuko dabene hainbat lagun batu zen domekan, aurtengo rallyan parte hartzeko. Guztira, 48 pertsonak emon eben izena; gazteen atalean 18 aurkeztu ziren, eta helduenean 30. Horreetatik 21 ziren Durangaldekoak, eta gainerakoak kanpotik etorri ziren; batez be, Bilbo inguruetatik.

Modalitate analogikoan 11k hartu eben parte, eta digitalean besteek. Ekimenaren balorazio ona egin dabe antolatzaileek.



Saibi mendiaren inguruan antolatu dabe hurrengo ekintza.



PRESTAKUNTZA

2009 / 2010



MODULUEN KATALOGO INTEGRATUAREN ETENGABEKO PRESTAKUNTZAKO IKASTAROA

DIRUZ LAGUNDUTAKO IKASTAROA

ARLOA	MODULUA	IKASTAROA / Kredituak	MAILA	DATAK	ORDUA
ADMINISTRARITZA	AUDITORIA	AUDITORIA	3	2009-10-26 2009-12-22	95
ADMINISTRARITZA	INFORMATIKA-APLIKAZIOAK ETA TEKLATU ERAGIKERA	INFORMATIKA-APLIKAZIOAK ADMINISTRARITZA ARLOAN	3	2010-03-22 2010-05-19	80
ADMINISTRARITZA	KONTABILITATEA ETA ZERGA-ARLOA	KONTABILITATE-ANÁLISIS	3	2010-03-22 2010-05-20	85
AUTOMOZIOA	ELEMENTU AMOBIBLEAK	OINARRIKO ELEKTRIZITATEA ETA ESKEMA ELEKTRIKOAK	2	2010-02-8 2010-02-23	30
AUTOMOZIOA	DIREKZIOA LERROKATEZA (K.K.)*	LERROKATZEA	2	2010-01-11 2010-01-14	12
AUTOMOZIOA	MOTORRAREN DIAGNOSIA (K.K.)*	BOSCH-ESI-KTS	2	2010-02-15 2010-02-18	12
AUTOMOZIOA	OINARRIKO MEKANIKA (K.K.)*	IBILGAILUEN MANTENUA ETA OINARRIKO MEKANIKA	1	MARTXOA 2010	12
AUTOMOZIOA	KARROZERIA (K.K.)*	HAGATXOEN BIDEZKO ERREPARAZIOA	2	OTSAILA 2010	12
FABRIKAZIO MEKANIKOA	TXIRBIL HARROZKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOA	PLANOEN INTERPRETAZIOA	2	2009-11-2 2009-11-26	50
FABRIKAZIO MEKANIKOA	TXIRBIL HARROZKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOA	FABRIKAZI-PROZESUAK	2	2009-11-30 2010-01-20	60
FABRIKAZIO MEKANIKOA	TXIRBIL HARROKETAREN FABRIKAZIOA	FRESAGAILU ARRUNTAREN MEKANIZAZIOA	2	2010-01-21 2010-03-15	80
FABRIKAZIO MEKANIKOA	MAKINEN PRESTAKETA ETA PROGRAMAZIOA	CNC FRESAGAILUAN PROGRAMAZIOA	2	2010-03-16 2010-04-22	48
FABRIKAZIO MEKANIKOA	MAKINEN PRESTAKETA ETA PROGRAMAZIOA	CNC FRESAGAILUAN PRESTAKETA ETA PROGRAMAZIOA	2	2010-04-26 2010-05-19	48
FABRIKAZIO MEKANIKOA	AUTOMATISMO ELEKTRIKO, PNEUMÁTICO ETA HIDRAULIKOAK	AUTOMATISMO PNEUMÁTICO ETA ELEKTROPNEUMATIKOAK	2	2010-03-2 2010-03-23	40
FABRIKAZIO MEKANIKOA	AUTOMATISMO ELEKTRIKO, PNEUMÁTICO ETA HIDRAULIKOAK	AUTOMATISMO HIDRAULIKOAK	2	2010-01-11 2010-01-28	36
FABRIKAZIO MEKANIKOA	AUTOMATISMO ELEKTRIKO, PNEUMÁTICO ETA HIDRAULIKOAK	AUTOMATISMO ELEKTROHIDRAULIKOAK	2	2010-02-1 2010-03-1	40
ELEKTRONIKA	PROGRAMAZIO TEKNIKAK	ORDENAGAILUAREN HARDWAREA	3	2010-11-23 2009-12-3	20
ELEKTRONIKA	OINARRIKO ELEKTRIZITATEA (K.K.)*	INSTALAZIO ELEKTRIKOAK ETA OINARRIKO AUTOMATISMOAK	1	2009-11-10 2009-12-2	40
ELEKTRONIKA	SISTEMEN ELEKTRONIKA	POTENTZIA-ERREGULAZIO ELEKTRONIKOA	3	2010-01-11 2010-02-11	70
ELEKTRONIKA	PROTOTIPO ELEKTRONIKOEN GARAPENA ETA ERAIKUNTZA	PCBak ERAIKI ETA MUNTATZEA	3	2010-01-11 2010-03-1	60
ELEKTRONIKA	INFORMATIKA INDUSTRIALA	CAD ELEKTRIKOA	3	2010-04-12 2010-04-27	30
INFORMATIKA	SERIE-KOMUNIKAZIOAK (K.K.)*	DATUEN TRANSMISIOA ETA MODEMS	3	2010-01-18 2010-01-28	24
INFORMATIKA	DATU BASEEN KUDEATZAILA-SISTEMAK	DATU BASEN ELABORAZIOA ETA DISEINUA	3	MARTXOA 2010	80
INFORMATIKA	INFORMATIKA (K.K.)*	WEB ORRIEN GARAPENA	3	2010-03-8 2010-03-25	30

*K.K.: KATALOGOTIK KANPO

SARBIDE-FROGAK ETA ESKAINTZA PARTZIALA

ERDI-MAILA	ERDI-MAILA	ERDI-MAILARAKO FROGA PRESTATZEKO KURTSOA	1	2009-10-5 2010-06-10	360
GOI-MAILA	GOI-MAILA	GOI-MAILARAKO FROGA PRESTATZEKO KURTSOA	2	2009-10-5 2010-06-10	360
LPOr	LAN-PRESTAKUNTZA ETA ORIENTABIDEA	LAN-PRESTAKUNTZA ETA ORIENTABIDEA	2	2009-11-16 2010-03-25	60
LPOr	AKME	ADMINISTRAZIOA, KUDEAKETA ETA MERKATURATZEA ENPRESA TXIKIETAN	2	2009-11-16 2010-03-25	90
LPOr	KALITATEA	KALITATEA ETA ETENGABEKO PRESTAKUNTZA	2	2009-11-16 2010-03-25	40

Matrikula: IURRETA INSTITUTUAN Olaburu Auzunea, 19
48215 Iurreta (Bizkaia)
Informazioa: Tel. 94 466 88 00 / Fax 94 620 28 28
www.iurreta-institutua.net
014950aa@hezkuntza.net



IRAGARKIAK

LANA

- Eskaerak
- Eskaintzak

ETXEBIZITZAK

- Salgai
- Errentan eman
- Errentan hartu
- Pisua konpartitu

IRAKASKUNTZA

- Klaseak hartu
- Klaseak eman

MOTORRA

- Salgai
- Erosi

LOKALAK




- Errentan eman
- Errentan hartu

ANIMALIAK

- Salgai
- Erosi

BESTEAK

- Berba egin
- Salgai



Osteguneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak ostiral horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

DOAKO IRAGARKIAK

(partikularrak):

- Bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: anboto@anboto.org edo
- Deitu 94 681 65 58 telefonora

ORDAINDUTAKO IRAGARKIAK (ez profesionalak):

Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94 621 79 02 telefonoan.

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Durango. Etxebizitza salgai erdigu-nean. Bi logela, sukaldea, egongela, komuna eta ganbara. 80 m2. 12 urte. Tel.: 656 711 625 edo 659 768 037

Abadiño. Etxebizitza salgai Muntzaratz auzoan. 3 logela, egongela handia, 2 komun, sukaldea, trasteleku txiki bi etxean eta ganbara. Berriztatua. Altzariekin, nahi izanez gero. Lokal komertziala aukeran (kotxe birentzako lekua). Tel.: 667 882 338

Pisua salgai Errioxan, Casolareinan. 20 m2-ko txokoarekin. Tel.: 615 789 859

Mallabian. Baserrira salgai 20.000 metroko lur zatiarekin. Oso toki polita. Tel.: 655 702 647.

Berriz. Pisua salgai erdigunean. 3 logela. 70 m2. Orintsu erreformatua. Tel.: 653 709 695

Durango. Pisua salgai Jesuiten inguruan. 3 gela, 2 komun, eskatza eta egongela. Balkoi bi ditu. Garajea eta barbakoa ere bai. Tel.: 618 555 452

ERRENTAN EMAN

Elorrio. Lokal bat alokatzen da etxebizitza izateko. 150 m2. Nahiko merke. Tel.: 688 632 078

Abadiño. Pisua alokatzen da Muntzaratzen. Jantzia, bi logela, bi komun eta garajea. Eraiki berria. Tel.: 687 579 705

ERRENTAN HARTU

Elorrio. Pisu bila nabil. Jantzita edo erdi jantzia. Berogailuarekin. Tel.: 94 658 21 91.

Abadiño. Pisua alokatuko nuke Zelaetan. Tel.: 699 295 914

Durango. Semeagaz konpartitzeko alokairuko pisu baten bila nabil. Tel.: 605 749 443

KONPARTITU

Zaldibar. Pisukide gazte baten bila nabil pisua konpartitzeko. Tel.: 685 724 619

MOTORRA

SALGAI

Mazda 6 Diesel salgai. Familiarra. 136 cv. Gehigarriekin. 6 urtekoa. Oso aukera ona. Prezioa negoziatzeko prest. Tel.: 636 237 730

Quad-a salgai. Kawasaki 400 KFX. Gutxi erabiliakoa. Gehigarri askorekin. Aurrealde eta atzealdeak zabalera emanda ditu. Bi urte eta erdikoa. Tel.: 649 402 518

BMW 318 IT salgai. 98. urtekoa. Gasolinakoa. 143 zaldi. Pack M. 171.000 Km. 4.500 euro, negoziagarria. Tel.: 662 040 493

Opel Astra 150c. Diesel salgai. Familiarra. Gehigarri guztiekin. 2005ekoa. Egoera oso onean. Prezioa negoziagarria. Tel.: 650 874 594

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Durango. Musika taldeentzako lonja bat alokagai. Insonorizatuta. Gela bi ditu. Tel.: 615 750 039

Durango. Garaje itxia alokagai Alde Zaharretik gertu. Tel.: 665 729 936

ERRENTAN HARTU

Abadiño. Garajea alokatu nahi dut Muntzaratz inguruan. Tel.: 691 731 075

IRAKASKUNTZA

EMAN

Berriz. Neska euskalduna klase partikularrak emateko prest (LH,DBH). Euskara eta ingeles maila ona. Tel.: 626 113 779

4. mailako Telekomunikazio Ingenieritzako ikasle euskalduna Batxilergo eta DBHko klaseak Durangon emateko prest. Tel.: 635 746 176

Neska euskalduna arratsaldez klase partikularrak emateko prest. Ingeles maila ona. Tel.: 615 708 238

DBHra arteko klase partikularrak ematen ditut. Italiara eta ingelesa ere bai. Tel.: 651 709 327

HARTU

Bakarkako ingeles klase partikularrak jaso nahi ditut. Tel.: 690 776 431

Ingeles maisua behar da bakarkako klase partikularrak emateko. Tel.: 615 007 216

ANIMALIAK

SALGAI

Astakumeak salgai. Tel.: 676 107 469

Txakurra salgai. Euskal artzai arraza colliarekin gurutzatua. Ahuntz eta ardiekin lan egiten daki. Urtebetekoa. Tel.: 94 621 82 57

Akerra salgai. Azpizuri arrazakoa. 3 urte ditu eta adar gabekoa da. Tel.: 94 621 82 57

BESTEAK

SALGAI

Berriz. Etxeko gela bi (altzariak) saltzen ditut. Tel.: 606 325 811

Mendi bizikletarako balaztak salgai. Formula 24k. Hidraulikoak. Estreinatua gabe. Adaptadoreak prezio berruan. 250 euro. Tel.: 675 008 804 (Harkaitz)

LANA

ESKAERAK

Berriz. Umea zaintzeko pertsona behar da. Tel.: 619 626 670

Durango. Gure bi alabak hezitzen, ikastolara eramaten eta etxea garbitzen lagunduko digun emakume euskaldun baten bila gabiltza. 20 ordu astean. Tel.: 94 603 34 04 edo 660 445 627

Ileapaintzailea behar da egun erdiz lan egiteko, arratsaldez. Tel.: 94 682 68 83

Durango. Neska gazte euskalduna behar da arropa denda batean lan egiteko. Bidali kurrikuluma argazkiarekin helbide honetara. E-mail: dendadurango@gmail.com

Andre euskalduna behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 94 622 50 48

Durango. Merkataritzako agentea behar da bezeroen bilketa eta mantenurako. Derrigorra da esperientzia izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 6.449. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Merkataritza agentea behar da aseguruen informazio eta salmentarako. Derrigorra da heziketa ertaina izatea, ordutegi malgua izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 6.455. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Enpresa batek kazetaria behar du euskaraz lan egiteko. Derrigorra da Kazetaritzan lizentziatua izatea, EGA izatea, Quarkxpress eta Photoshop programak menderatzea eta Durangaldean bizitzea. 8 orduko lanaldia, 2009ko urrian hasi eta 2010eko iraila arteko kontratuarekin. Erreferentzia: 6.555. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

ESKAINTZAK

Neska euskalduna, portalak eta tabernak (gauez) garbitzeko prest. Tel.: 664 146 904

Neska gazte euskalduna asteburuetan tabernan lan egiteko prest. Tel.: 94 673 15 51

Bertako neska eskaintzen da goiz zein arratsaldez umeak eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia askorekin. Tel.: 688 676 588 / 94 658 33 32

Neska euskalduna ume txikiren bat zaindu, euskara klase partikularrak eman edo mintzamina lantzeko eskaintzen da. Tel.: 686 809 628

Neska euskalduna goizetan, 10:00etara arte, etxeko lanak egin zein umeak eskolara eramateko prest. Tel.: 615 726 206

Elorrio. Haur Hezkuntzako teknikaria arratsaldetan umeak zaintzeko prest, astelehenetik ostiralera. Neska euskalduna eta esperientziaduna. Tel.: 688 640 604 (Lohitzune)

Neska euskalduna klase partikularrak eman zein umeak zaintzeko prest. Kotxea daukat eta Haur Hezkuntzako titulua ere bai. Tel.: 680 274 327

Esperientziadun neska euskaldunak klase partikularrak ematen ditu Berrizen, Haur Hezkuntza, DBH zein Batxilergoko ikasleentzako. Goizez umeak ikastolara eramateko ere prest. Tel.: 605 763 942

Durangoko jaietan tabernan lan egingo nuke gauez, barran. Tel.: 676 985 501

Esperientziadun emakume euskalduna umeak eta pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tel.: 680 509 532

Neska euskalduna arratsaldetan umeak zaindu zein klase partikularrak emateko prest. Tel.: 653 712 460

Elorrioko neska bat etxeetan ilea apaintzeko prest dago, astelehenetik ostiralera arratsaldez, eta zapatu goizetan. Tel.: 637 315 085 (Iraia)

Neska gaztea haurrak zaintzeko eta arratsaldetan edozein lanetan orduka aritzeko eskaintzen da. Tel.: 615 716 232

Argazkilaria esperientziaduna ezkontza eta bestelako ekitaldietan argazkiak egiteko prest dago. Prezio onean. Tel.: 680 592 903

Berogailu elektrikoa salgai. 30 litrokoa. Berria da, erabili gabekoa. Tel.: 699 295 914

Arkoi izozkailua salgai. Ignis ICF 271. Berria da, erabili gabekoa. Tel.: 699 295 914

Etxe**ko kanpaia** salgai. Isla estilokoa. la-ia barria da. Pando markakoa. Altzairu herdoilgaitzekoa. Tel.: 94 622 56 73

Play Station 3 salgai. 80 GB. la erabili barik. Jokoak eta mandoak oparitzen ditut. 225 euro. Tel.: 606 307 439

Karreratako bizikleta eta ziklo kroseko bizikleta salgai. Tel.: 648 260 880 (Maite)

Erabilitako CDak salgai. 400 inguru dira. Txollo ona da, benetan Tel.: 606 266 244

Bizikleta koadroa salgai. Berria da, Goka Knife modeloa. Tel.: 686 651 382

Neopreno laburra salgai. Madmess Titanium. Berria da, erabili gabekoa. Etiketekin. Beltza eta gris iluna. Neurria "S"~155cm. Tel.: 658 738 734

EROSI

Bikiak paseatzeko aulkitxoa erosi gura dut. Tel.: 650 573 607

BEREZIAK

Afrikar trentzak eta beste hainbat orrazkera egiten ditut. Tel.: 676 009 302. Dikson.

Txakur hezitzailea. Eusko Jaurilarizan erregistratua. Hainbat zerbitzu eskaintzen ditut. Galdetu arazo barik. Tel.: 656 791 027

Athleticen bazkide txartela alokagai denboraldi osorako. Tel.: 679 058 167

45-50 adin tarteko lagun bila nabil, arratsaldero ibilaldiak egiteko txakurrarekin eta abar. Tel.: 636 847 262

Poltsikoko egutegiak badituzu, edo bildumak egiten badituzu deitu zenbaki honetara. Tel.: 665 718 061

Atxondo. Karabanak gordetzeko zerbitzua. 900 m2-ko lokala. Tel.: 618 608 908

Eskuko desbrozadorarekin garbiketak egiten ditut. Orduko kobratzen dut. Tel.: 619 552 202

Denetariko margogintza artistikoa egiten dugu. Altzarien eraldatzea, margolanen erreprodukzioa eta marrazkiak zurezko zoruetan, besteak beste. Tel.: 678 704 197

Ezkontza edo antzeko ospakizunak musikatzea nahi badozu deitu hurrengo zenbaki honetara: Tel.: 605 744 945

Ekitaldi ahaztezin bat izan nahi baduzu girotu ezazu zeure gustuko musikarekin. Biotxe Durangoko biolontxelo eta biolin bikotea da. Orkestretan jotzen hainbat urte egin eta gero, errepertorio zabala dugu aukeran ezkontza, inaugurazio eta ekitaldiak girotzeko. Euskadi osoan zehar mugitu gaitezke. e-posta:biotxe@hotmail.com Tel.: 635 746 176 (Maialen)

INMOBILIARIAK




AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 - bajo - Tel. y Fax: 94 681 64 23
48200 DURANGO / Bizkaia

ETXEBIZITZA BERRIAK

- Andra-Mari: Apartamentu berriak eraikitzen.
- Zaldibar: Etxebizitzak eraikitzen.
- Abadiño: Txalet bifamiliarra lur eremuarekin.
- Atxondo: Adosatua lursailarekin.
- Atxondo: Baserria salgai.
- Errentenbu: Adosatua eraikitzen.
- Errentenbu: Txalet bifamiliarra eraikitzen.
- Otxandion: Adosatua. Eraikuntza berriak.
- Otxandion: Familia bakarreko etxea lursailarekin.

ETXEBIZITZA SALGAI

- Muntzaratz: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun, balkoia eta ganbara. Egoera oso onean. Igogailua. Eguzkitsua.
- Muntzaratz: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 2 logela, 2 komun eta balkoia. Garajea eta ganbara (berria eta egoera oso onean)
- Murueta Torren: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta balkoia. Garajea eta ganbara. (berria hobekuntzekin).
- Murueta Torren: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta balkoia. Garajea trastelekuarekin eta ganbara. (eguzkitsua eta ikuspegiekin).
- Murueta Torren: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta balkoia. Garajea eta ganbara.(berria, erdi jantzia).
- Murueta Torren: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta balkoia. Garajea eta ganbara.
- Plateruen Plazan: Halla, egongela, jangela, sukalde jantzia, 4 logela, 3 komun, garajea eta trastelekua.
- Plateruen Plaza(ERMODORANTZ): Halla, egongela-jangela, sukalde-jantokia, 2 logela eta 2 komun.
- San Agustinalden: Apartamentu berriak salmentan.
- San Fauston: Halla, sukalde-jantokia, 2 logela eta komuna. Etxe jantzia.
- San Fauston: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna.
- San Fauston: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela, komuna, despentsa eta ganbara.
- San Fraziskon: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta komuna. 2 balkoi eta trastelekua.
- Sasikoan: Halla, egongela, sukalde-jangela jantzia, 2 logela, komuna, eta ganbara. Etxe jantzia.
- Sasikoan: Halla, egongela, sukalde-jantokia, 2 logela, komuna, ganbara eta balkoi zabala. Etxe jantzia.
- Tronperrin: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 4 logela, 2 komun eta balkoia. Ganbara eta garajea. Etxe jantzia.
- Txibitenan: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia eskegitokiarekin, 3 logela, 2 komun. Ganbara eta garajea. Erdi jantzia ikuspegiekin.
- Untzillaitzen: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 2 logela, 2 komun eta balkoia. Garajea eta trateleku. (erdi jantzia).
- Zeharkalean: Halla, egongela,-jangela, sukaldea, 2 logela, komuna eta terraza zabala.



Inmobiliaria del Duranguesado

Askatasun etorbidea, 10 48200 DURANGO
Tel./Faxa:94 681 66 66 inmoduranguesado@gmail.com
www.inmoduranguesado.com

ETXEBIZITZA SALGAI

- Askatasun Etorbidean: Promozio berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak.
 - Logela bakarra garajea eta trastelekuarekin 200.000+ BEZ
 - 2 logela garajea eta trastelekuarekin 233.000+ BEZ
 - 3 logela garajea eta trastelekuarekin 350.000+ BEZ
- Tabira: Luxuxko etxebizitza berrien promozioa. Ganbararekin.
- Ezkurti: 130 m2. 4 logela. Garajea. Handia. Orientazio ona.
- Askatasun Etorbidea: 123 m2. 4 logela. Garajea, trastelekua eta ganbara. Altuera ona. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.
- Fray Juan de Zumarraga: 108 m2. 4 logela. Altuera ona.
- Komentu kalea: 90 m2. 4 logela. Ganbara. Terraza.
- Juan de Itziri: 4 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Bizitzen sartzeko moduan.
- Herriko Gudarien kalea: 105 m2. 3 logela. Garaje itxia. 42 m2-ko terraza.
- Askatasun Etorbidea: Erdi berria. 92 m2. 3 logela. Garajea eta trastelekua.
- Ermodo: Erdi berria. 90 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Balkoia.
- Zabale: 90 m2. 3 logela. Garajea eta trastelekua. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du.
- Murueta Torre: 88 m2. 3 logela. Garajea eta trastelekua.
- San Ignazio: 104 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Erdi berria. Altuera ona. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.
- Pagasarri kalea: 94 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Erdi berria. Etxe osoak kanpora ematen du.
- Iparraguirre: 80 m2. 3 logela. Guztiz berriztatua. Altuera ona.
- Astarloa: 75 m2. 3 logela. Berriztatua. Igogailuarekin.
- Aramotz: 70 m2. 3 logela. Berriztatua. Bizitzen sartzeko moduan.
- Laubideta: 70 m2. 2 logela. Garaje itxia. Beheko solairua lur sailarekin.
- Oñiturri – Askatasun Etorbidea: 78m2. la berria. 2 logela. Ganbara.
- Asbiki: 74 m2. 2 logela. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea eta ganbara. Balkoi handia.
- Landako: 80 m2. 2 logela. Garajea eta ganbara. Balkoia.
- Zeharkalea: 68 m2. 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna.
- Murueta Torre: 76m2. Erdi berria. 2 logela. Garajea eta ganbara.
- Mikeldi: 50 m2. Logela bakarra. Garajea eta ganbara. Erdi berria.

ZALDIBAR: Lursaila. Eraikitzeo aukerarekin. BERRIZ, ZALDIBAR, ELORRIO, ABADIÑO: Etxebizitzak salgai. 2 eta 3 logela.

DURANGALDEA: Txaletak eta baserriak zonalde ezberdinetan. Pabilioiak, lokalak, garajeak... Aukera zabala.



ETXETXO
G. INMOBILIARIA
Fray Juan de Zumarraga, 4. 48200 Durango
Tel.: 94 681 40 40

ERAIKUNTZA BERRIAK

- Durango: ETXEBIZITZA BERRIAK SALGAI. Terrazarekin. 1, 2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak.
- Zaldibarren: 2, 3 eta logela bakarreko etxebizitzak. Etxebizitzak garajearekin eta trastelekuarekin.Guztiz jantziak. 138.000 €-tik aurrera.
- Ermodo kalean: Eraikuntza berria. 105 m2. Guztiz kanpora ematen du. Ganbara, garajea eta trastelekua.
- Tabiran: Promozio berria. Luxuzko etxebizitzak.

ETXEBIZITZA SALGAI

- Ermodo: 100 m2. 3 logela eta 2 komun.
- Astxiki kalean: Estreinatzeko. 2 logela. Terraza. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua.
- Pinondon (Tabira): 3 logela eta 3 komun. 2 terraza
- Atxondo: Baserria. 210.000 €.
- San Fausto: 2. solairua. 143.000 €.
- Durango: Bizitzen sartzeko moduan. 2 logela eta egongela. 156.300 €.
- Andra Mari: Apartamentua. Guztiz jantzia. 162.000€.
- Urkiagatorre kalean: 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Trastelekua. 179.000 €.
- Aramotz: 3 logela, egongela. 202.500 €.
- Berriz: Guztiz berriztuta. 154.500 €.
- Tabira / Arriluzea: Duplexa. Erdi berria. Garajea.
- Tabira: Apartamentua. 60 m2. Terraza. Ganbara.
- Plateruen Plaza: Berria. Atikoa. Terraza. 2 logela.
- Artzetagan kalean: Apartamentu berria garajea eta trastelekuarekin. Bizitzen sartzeko moduan.
- Mendizabalén: 2 logela eta 2 komun. Garaje itxia eta ganbara. Erdi berria.
- Antso Eztegi: 3 logela eta komuna. Aukera ona.
- Murueta Torren: 90 m2. Berria. 3 logela. Terraza. Ganbara eta garajea. Aukera ona.
- Durango: Txaleta. Estreinatzeko. Lorategiarekin. IURRETA
- Zubiaurre: 3 logela. Guztiz jantzia. 210.000 €.
- Bidebarrieta: 70 m2. 3 logela. Terraza. Igogailua.
- Bixente Kapanaga: 90 m2. 3 logela eta 2 komun. Trastelekua eta garajea.
- Orozketa: Baserria. Guztiz berria. 3 solairu.

ABADIÑO

- Feria Leku: 90 m2. 3 logela eta egongela.
- Zeletabe: 100 m2. 3 logela eta 2 komun. Garajea.
- Matiena: 3 logela eta egongela. 180.300 €.
- Matiena: Laubideta kalea. Apartamentua. Garaje aeta trasteleku handia.
- Abadiño: Txaleta. Bifamiliarra. Lursailarekin.

PABILIOIAK SALGAI

- Iurreta: Mallabiena. 400 m2. Berria.
- Matiena: Berria. 400 m2. 10 m2-ko altuera. (Eroski ondoan).
- Matiena: 350 m2. Instalazio guztiekin. 1.150 €.
- Abadiño: 1250 m2. Estreinatzeko. Alokairuan edo salgai.

ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN, LOKAL KOMERTZIALAK, GARAJEAK, KONTSULTATU...



Amboto
San Agustinalde, 4 - 1 Ed. DURANGO
TE: 94 681 35 62 email: amboto@euskalnet.net

ETXEBIZITZA SALGAI

DURANGO

- Erdialdea: Apartamentu berriak. Logela bat edo bikoak eta sukaldea jantzita. 172.000 €-tik hasita. Lehen mailako materialak. %100eko finantzaketa.
- Apartamento berriak eraikitzen.700 € hilero.
- Andra Mari: 110 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Leku onean.
- Durango: Eraiki berria. 2 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin, egongela eta garaje itxia. Lehen mailako materialak.
- Tabira: Eraikuntza berria. Logela bakarreko apartamentua. Sukalde jantokia, komuna eta eskegitokia.
- San Inazio Auzunea: Berriztatu berria. 3 logela, (logela printzipala komuna eta jantzigelarekin), 2 komun, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Aire girotua. Ganbara eta garajea.
- Pedro Pablo Astarloa: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea.
- Barrenkale: AZKENEKO DUPLEXA. Eraiki berriak.
- Herriko Gudarien kalea: 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 2 terraza eta garaje itxia.
- Astarloa: 3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, eta komuna. Ganbara.

IURRETA

- 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Igogailua. Gas naturaleko berogailua. Prezio interesgarria.

MATIENA-ABADIÑO

- Txinurrisoló: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea balkoiarekin. Ganbara, garajea eta trastelekua. Etxe osoak kanpora ematen du.

JAKA

- Apartamentua. 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje aeta trastelekua. la berria. Estreinatzeko.

ATXONDO

- 2 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Garajea. Berria estreinatzeko. Prezio interesgarria.

TXALETAK SALGAI

ABADIÑO

- Mendiola. Bifamiliarra.Eraiki berria. Estreinatzeko.Informazio pertsonalizatua.

ELORRIO

- Jaral de Bedoya. 240 m2-ko txaleta eta 200 m2-ko lorategia. Garaje bikoitza, txokoa, sukalde eta egongela handiak, 4 komun, 4 logela bikoitz eta terraza. Banaketa. Sotoa, Beheko solairua, Lehenengo solairua eta Bigarren solairua hidromasaje, suite eta terrazarekin.

DENPORAPASAK>

HITZ GEZIDUNAK >

	Donemiliaga ko auzoa	Irratiko hizlari	Irakeko
	Uretan ondu	Maitasuna	
* Zaldibarko taldea	Laudioko auzoa	Errainu	Garaierak
	Mahaiko tresnak		
Oihu	Sexu harreman debekatua	Berako auzoa	Mapen bilduma
Mentua	'H' batez, bustiak	Kontso-nantea	Gai bakun
Pot eginez, musua emanaz	Salaketa egin	Zintzo	Artsenikoa
	Eguneroko jaki		
Garen hauek	Lepoa	Fosforoa	Gizon izena
'La' notaren emaila	Fosforoa	Gizon izena	Gizon izena

SUDOKU >

Zelan jokatu: Osatu taula (bederatzi koadrotan banatua), 81 lauki dituen (bederatzi lerro eta zutabetan jarriak), gela hutsak 1-9 arteko zenbakiekin betez, lerro, zutabe edo koadro bakotxean zenbakirik ez errepikatze moduan.

1		8						
						3	2	
		6	1	7				
1				5			6	
6	2			9	8		7	
9			3					
		4	5	1		6	3	
				4				
					2	5		

2		1		8	2		5	3
2				9				
				5				
						3		
7			4					
						6		9
			3			4		1
6	4		5	1		9		
8			9					

ERANTZUNAK >

I	O	S	V	d	V	I	D
V	M	V	S	•	U	G	•
N	O	•	V	K	L	O	d
U	L	V	T	V	S	•	•
•	V	O	L	R	E	X	L
R	•	K	V	E	Z	E	•
V	I	Z	•	U	L	S	E
I	R	I	Z	T	N	I	•
K	V	R	V	L	I	O	K
V	L	E	V	•	N	•	•
R	V	N	I	•			
I	S	O	E	G	E		
•	E	•	E	•			

5	7	3	4	9	6	2	1	8
8	2	6	7	1	5	3	4	9
1	9	4	8	2	3	6	7	5
6	4	9	3	7	8	5	2	1
2	1	5	9	6	4	7	3	8
7	3	1	8	1	5	2	4	9
9	6	2	5	4	1	7	8	3
4	1	8	6	3	7	9	5	2
3	5	7	2	8	9	1	6	4

4	5	2	3	8	6	1	9	7
8	6	1	4	7	9	2	5	3
3	9	7	1	5	2	4	6	8
2	1	5	9	3	8	7	4	6
7	3	8	6	1	4	5	2	9
9	4	6	5	2	7	3	8	1
5	8	4	7	6	1	9	3	2
2	1	3	8	9	5	6	7	4
6	7	9	2	4	3	8	1	5

HOROSKOPOA >

 **Aries**
marxoak 21 - apirilak 20

Udazkeneko ilunak ez zaiazala tristetu. Goizetan gosaldu ondo, eta kirola be egizu, ahal dozunean. Aldea igarriko dozu.

 **Leo**
uztailak 21 - abuztuak 23

Hori da hori patxada! Zu, behintzat, ez zaitu krisialdiak larrituko. Baina, ez dakit larregiko lasaitasuna be ez ete daukazun...

 **Sagittarius**
azaroak 24 - abenduak 23

Gorputz eskasa edukitzeak ez dau esan gura A gripea daukazunik! Ez larritu, lagun! Ez zara hipokondriakoa izango, ezta?

 **Taurus**
apirilak 21 - maiatzak 20

Gose itzelagaz bueltatzen zara etxera, eta, gehienetan, hozkailua erdi hutsik edukitzen dozue. Nori tokatzen jako erosketak egitea?

 **Virgo**
abuztuak 24 - irailak 23

Ez pentsatu telebistan ageri diren bikoteak errealak direnik. Gainera, bikote bakotxa den modukoa da, onerako eta txarrerako.

 **Capricornus**
abenduak 24 - urtarrilak 20

Papera birziklatzeak daukan garrantzia ahaztuta daukazu, antza denez. Arboleak eskertuko deusue saiakera bat!

 **Gemini**
maiatzak 21 - ekainak 20

Liburu bat idaztea gauza handia da, handiegia akaso. Baina egunero-koan idazteak ez deus kalterik egingo, alderantziz baino!

 **Libra**
irailak 24 - urriak 23

Batean zuloa eta bestean zulo handiagoa. Galtza barriak erosi, halako tomateekin freskura sentituko dozu-eta!

 **Aquarius**
urtarrilak 21 - otsailak 18

Gezurra eta egiaren artean ezberdintzen ikasi beharko zeunke. Askotan ez dakizu zeuk be zer kontatzen zabilzen!

 **Cancer**
ekainak 21 - uztailak 20

Zure ordenagailuak birusa daukala dinozu. Ez ete zara zeu birusa? Ez badozu ondo tratatzen, berak be ez deus tratatu onik emongo...

 **Scorpius**
urriak 24 - azaroak 23

Kontuz ibili aste honetan, begiratu lurrera kaletik zoazenean. Behar bada, zapaldu gura ez dozun zeezer gurutzatuko da zure bidean...

 **Piscis**
otsailak 19 - martxoak 20

Aspaldi ohitu zinen egoera honeetara. Dena dela, ez hartu normaltzat. Egin une txarretatik onetara pasatzeko saiakera.

ZORION AGURRAK >

agurrak: zorionak@anboto.org-ra
Santa Ana 6, 48200 durango



Milak eta Txapuk eta Maitek eta Juanjek zilar ezteiak ospatu zitueen joan zen zapatuan. Egun zoragarria pasatu genduen familian. Zorionak lauroi, guztion partez.



Urriaren 26an **Eneriz Agirrek** 26 urte egin zituen. Zorionak eta mosu handi handi bat, familia osoaren partez. Zapatuko ezkontzan ospatuko dogu.



Hamabostero, jasotako zorion-agur guztien artean tarta bat zotz egingo dogu. Horretarako beharrezkoa da bialdutako mezuagaz batera telefono zenbakia emotea.

anboto astekariak Eusko Labelarekin batera **saski bat** zozketatuko dau hilero



Goi-mailako
elikagaiak
Alimentos de
calidad superior



zozketa

Arabako babarrun kilo 1, "Ibarrako Piparrak" pote 1, Ezti pote 1, Idiazabal gazta erdi, "Bizkaiko Txakolina" botila 1, "Arabar Errioxako Ardoa" botila 1, Arabar Errioxako olio birjin botila 1, Txakolin-bonboi kutxa 1 eta 30 €-ko txartel 1 Euskal Okelagatik, Euskal Esne Bildotsagatik edo Euskal Baserriko Oilaskoagatik trukatzeko.

**Zenbat eta gehiago bialdu
orduan eta aukera gehiago**

Bidali edozein Label produkturen etiketa, Anboto astekarian argitaratzen den Label txartelagaz batera (31. orrialdean hamabostero), hurrengo helbidera:

Erref.: "Eusko Label Saskia"

Anboto Astekaria • Bixente Kapanaga ,9 • 48215 Iurreta

AKUILUAN

■ Jone Guenetxea ■ Argazkia: Iban Gorriti

LAUHORTZA



Jasone Agirre
Kazetaria

Parkatu

Behin Parisera joan nintzen lagun batekin. Miarritzen hegazkina hartu behar eta, nebak eroan gintuen auto-moblean. Baina greba edo horrelako zeezeren bat zegoen autobideko ordainlekuetan. Ilara luzeak zeuden, hegazkina irteteko ordua gero eta hurrago, eta gu Irunera heltzeko oraindik. Azkenean, kotxetik bajatu eta oinez hasi ginen bide jeneraletik, "topoa" hartzeko Hendaia-raino. Bide luzea zenez, autostopean egin genuen. Furgoneta bat geratu zen, beharretik zetorren mutil bat zen. Zer

Ilara luzeak zeuden, hegazkina irteteko ordua gero eta hurrago. Bidea luzea zenez, autostopean egin genuen

gertatzen zitzaigun kontatu eta lagunduko zigula berak, hori bai, baldintza batekin: Parisetik postal bat bidaltzekotan. Guk baietz, baietz, baina helbiderik hartu ez. Jaungoikoak dakien bideetatik eroan gintuen toporaino. Pozaren pozez furgonetatik bajatu, maleta eta traste guztietik, eta trena harrapatu genuen azkenean. Maleta eta zorroak banatzen hasi eta bat soberan. Batak bestearena zelakoan hartu, eta inorena ez zorro hura. Aibadios! Mutilaren zorroa zen konturatu barik hartuta! Eta gu Parisera, eta mutilaren helbiderik ez. Treneko arduradunari eman genion deskuiduan mutil hura handik agertzen bazen.

Ezin dut ahaztu. Ez postalik ez poltsarik bidean aurkitu genuen aingeruari.

Sarritan onik handiena egiten digutenei ordaintzen diegu txartoan.

"Txirrindulari bizitza oposaketak prestatzea baino gogorragoa da"

Zornotzako lasterketa irabazi izana da Unai Etxebarriak oroitzen dauen garaipenik politena

Etapa gogorrenetan bizikleta gainean eustea zer den ondo daki Unai Etxebarriak. Hamabi urte profesional mailan eman ditu Euskaltel-Euskadin. Orain urte bi erretiratu zen, baina ez deusaz txirrindularitzari ateak itxi.

Venezuelarra zara.

Aita eta ama hemengoak dira, baina arreba eta biok Caracasen jaio ginen. Orain arte Venezuelako nazionalitatea izan dot, eta orain bikotxa daukat.

Hango selekzioagaz lehiatutakoa zara.

Esperientzia polita izan da. Greziako joko olimpikoetan parte hartu neban Venezuelagaz. Profesionaletan urte bete gehiago jarraitu gura neban Pekinera joan ahal izateko, baina txirrindularitza itzi behar izan neban, ez nintzen joan.

Zelanekin zeuntsan txirrindularitzari?

Kurutzia gaitasun Urdaxpal eta Alex lagunak txirrindularitzan hasi ziren, eta eurek bultzatu ninduen. Amak ez eustan izten, arriskutsua zela eritzita. Kristina Mardaras eta Justo Alberdi etorri ziren txirrindularitza gazteen artean bultzatzeko.

Txirrindularitzan aldaketarik nabaritu dozu?

Aldaketa handiak gertatu dira. Euskadi taldean ez geunkan dirurik. Lau kotxe eta furgoneta bat geunkazen. Karrera amaitu eta kotxean aldatzen ginen. ONCE eta halako taldeek autobusa be edukitzen eben. Egun, gazteak pasatzen direnean gauza horreek badaukiez, eta gaxtagoa da baloratzea. Talde handiak geroago eta handiagoak egiten dabilz eta txikiak desagertzen.

Zaletuen bultzada sentitu izan dozu?

Tourrean Pirinioak ikurrinaz beteta ikustea polita da. 'Marea laranja' izaten zen. Lagunak be joaten ziren, baina topera nindoanez batzuk ikusi be ez nituen egiten.

Zein izan da gogoratzen dozun garaipenik politena?

Zornotzako lasterketa irabaztea bihotzera heldu jatan. Gaztetan ikustera joaten nintzen lasterketa irabaztea polita izan zen.

Harrobia sasoi onean dagoela deritzozu?

Gazteak oso ondo dabilz. Igor Anton, Intxausti... Baina gu gazteak ginenean jente gehiago genbilzen. Txirrindulari eskoletan geroago eta gazte gitxiago dabilz.

Oposaketak ala txirrindularitza dagogoragoa?

Suhiltzaile oposaketa gogorra da, baina txirrindularitza askoz gogorragoa. Baina, oposaketak gaindituta suhiltzaile lana txirrindulariarena baino gaxtagoa izan leiteke. Txirrindularitzan entrenamenduak, kontrolak... Denpora guztian non zagozen esan beharra. Planak aldatzen badozuz be bai. Tentsino hori oso gogorra da. Ilegala izan beharko litzateke hilabete horreetan non zagozen denpora guztian esan beharra. Pinganilloarena be tentsino handia da. Txirrindulariak pinganillo barik gehiago ikusten dauenez, kendu egingo neuke.

Unai Etxebarria •

Durangarra

37 urte





LA TOSTADORA



LA TOSTADORA



LA TOSTADORA



LA TOSTADORA



LA TOSTADORA



LA TOSTADORA



LA TOSTADORA



LA TOSTADORA



LA TOSTADORA



LA TOSTADORA



CAFES **LA TOSTADORA**
Andramari kalea (DURANGO) - Tlf.: 946 81 48 36